



ATXILOTZEKO ETA ENTREGATZEKO EUROPAKO AGINDUA



ZUZENBIDE GRADUA

2017-2018

JOKIN ZABALA ALFAROK EGINDAKO LANA

JUAN IGNACIO UGARTEMENDIA ECEIZABARRENAK
ZUZENDUTAKO LANA

AURKIBIDEA

I SARRERA	4
II AEEAREN TESTUINGURUA. ASJEREN BILAKAERA	5
2.1 1957 Erromako Hitzarmena, 1975 Treviko Taldea. 1957-1992	5
2.2 1992-1999 Maastrichtetik Amsterdamera. EBko 3 zutabeak	8
2.3 Amsterdameko Hitzarmena: ASJeren sorrera	10
2.4 Lisboako erreforma	13
III ATXILOLZEKO ETA ENTREGATZEKO EUROPAKO AGINDUA	14
3.1 Testuingurua eta kokapena	14
3.2 Kontzeptua	15
3.3 Aplikazio eremua	18
3.3.1 Espazio eta denbora eremua	18
3.3.2 Eremu materiala. Egozgarritasun bikoitzaren printzipioa	21
3.4 Agintaritza judizial eskudunak	22
3.5 Forma eta edukia	23
3.6 Entrega prozedura	24
3.6.1 Igorpen eta transmisioa	24
3.6.2 Exekuzioa	25
3.7 AEEA ez exekutatzeko arrazoiak	26
3.7.1 Derrigorrez ez exekutatzeko arrazoiak	26
3.7.1.1 Amnistia	27
3.7.1.2 Gauza epaitua. <i>Ne bis in idem</i>	27
3.7.1.3 Adingabetasuna	28
3.7.2 Aukeran ez exekutatzeko arrazoiak	28
3.7.2.1 Krimen egozte bikoitzaren ausentzia	29
3.7.2.2 Auzibitarrea	29
3.7.2.3 <i>Ne bis in idem</i>	29
3.7.2.4 Preskripzioa.....	30
3.7.2.5 Nazionalen eta egoiliarren entrega.....	30
3.7.2.6 Konpetentzia eta lurraldetasun printzipioak.....	33
3.7.2.7 Auzi ihesean egindako sententziak	33
3.7.3 Estatu igoerleak exekuzioa burutzeko egin beharreko bermeak	34
3.7.3.1 Biziarreko askatasun gabetze zigorra	34
3.7.3.2 Nazionalen entrega.....	35

IV. JURISPRUDENTZIA	36
4.1 Melloni kasua	36
<i>4.1.2 Aurrekariak. AKk aurkeztutako judizio aurreko arazoa</i>	36
<i>4.1.2 EBJAren erantzuna</i>	37
4.2 Aranyosi eta Căldăraru kasua. Elkarrenganako konfiantza printzipioaren salbuespenak, oinarrizko eskubideak jokoan daudenean.	40
<i>4.2.1 Kasua</i>	40
<i>4.2.2 EBJAren ebazpena</i>	43
V ONDORIOAK	45
VI BIBLIOGRAFIA	47

LABURDURAK

AEEA	Atxilotzeko eta Entregatzeko Europako Agindua
AK	Auzitegi Konstituzionala
AN	Audientzia Nazionala
ASJE	Askatasun, Segurtasun eta Justizia Espazioa
BJLO	Botere Judizialaren Lege Organikoa
EB	Europar Batasuna
EBJA	Europar Batasuneko Justizia Auzitegia
EBOEG	Europar Batasunaren Oinarrizko Eskubideen Gutuna
GEEA	Giza Eskubideen Europako Auzitegia
GEEH	Giza Eskubideen Europako Hitzarmena
NBE	Nazio Batuen Erakundea

I SARRERA

Azkenaldian komunikabideetan egunero entzuten dugu, Carles Puigdemonten egoeraren inguruan, “Orden Europea de Detención y Entrega”, edo soilik “Euroorden”aren ideia.

Europar Batasuna aldatzen joan da urteen poderioz, eta lankidetza ez da bakarrik eremu ekonomikora mugatu. Schengen sistemak zigor arloan neurri bereziak eskatzen zituen, mugen kontrol eza kriminalitate supranazionalak bere alde ez erabiltzeko.

Estradizio arruntak eremu prozesalean dituen prozesu luzeak arintzeko eta esku hartze politikoa ekiditeko asmoz, Atxilotzeko eta Entregatzeko Europako Agindua sortu zen.

Baina, ze ezberdintasun dago AEEA eta estradizioaren artean? Zergatik Llarena epaileak eskatu eta gero bertan behera utzi zuen? Gai honek interpretazio ezberdinak eta eztabaidak sortu ditu, eremu juridikoan eta hortik kanpo ere. Lan honen asmoa, beraz, gizarteak planteatzen dituen galderari erantzun juridiko bat ematen saiatzea da.

EBk bizi duen egoera soziopolitikotik ondorioztatu dezakegu lankidetza judizial penal gai gatazkatsua izango dela, AEEA buru. Irlanda eta Poloniaren arteko kasua, non lehenak ez duen bigarrenaren AEEA bat exekutatu nahi, independentzia judizialaren falta argudiatuz, beste askoren lehenak izan daiteke. Elkarrenganako konfiantza hori finkatu ezean, AEEAk etorkizunean arazo ugari izan ditzake.

Gai honen azterketa orokorra egiteko, lehenengo AEEAren sorreraren testuingurua azaldu dut, 1957tik emandako pausuen laburketa bat eginez. Batez ere, ASJEren azterketa egin dut, honen barnean dauden gaien arteak kokatzen delako lankidetza judizial penala.

Gero, Erabaki markoaren azalpenari ekin diot, honen disposizio esanguratsuenei erreparatuz. Horrela, edozein pertsonak gaiaren inguruan zalantzak argitu nahi balitu, atal hori irakurriz zalantza horiek desagertzeko moduko azalpena egin dut.

Honen ostean, EBJAren bi sententzien analisisia egin dut, batez ere, oinarritzko eskubideen tutelarekin daukaten erlazioarengatik. Lehenak AKk planteatutako lehen judizio aurreko arazoa da, eskubide prozesalei buruzko sententzia (Melloni kasua). Bigarrena, ordea, erreklamaturako pertsonak Estatu igoeraren espetxean tratatu apalesgarri edo ez gizabidezkoak jasatearen aukeraren inguruko ebazpena da, Aranyosi eta Caldararu kasua.

Bukatzeko, gaiaren ondorioekin eman diot amaiera lanari.

II AEEAREN TESTUINGURUA. ASJEREN BILAKAERA

Figura juridiko hau Europar Batasunak lankidetzaz judizialean egindako aurrerapausoen ondorioa da. Gaur egun, Askatasun, Segurtasun eta Justizia Espazioaren barruan kokatzen da. Hirukote horren printzipio nagusia herritarren askatasuna da, eta hori egikaritzeko beharrezkotzat jotzen da segurtasuna eta justiziaren papera. Espazio hau EBren politika bat gehiago bezala hartu zen hasieran, baina Batasunaren helburu bilakatu da, eta ez bakarrik merkatu bateratua lortzeko mekanismo bat.

“Y ello es así porque la consecución de este Espacio ha pasado de ser una libertad de circulación de las personas como parte de la consecución de un mercado económico común, a convertirse en piedra importante del proceso de construcción europeo, ya que la criminalidad no ha desaprovechado las oportunidades que esta apertura de fronteras le ha brindado y ha sido y es necesario articular mecanismos y medidas de control y de coordinación entre los Estados miembros, especialmente referido a la necesidad de prevenir y reprimir la comisión de delitos en el territorio de la Unión Europea.”¹

Beraz, EBren eginbehar nagusietako bat da ASJE, integrazio ekonomikoen helburuen parera, daukan garrantzia politiko eta juridikoarengatik. Horren isla da EBeko Tratatuaren 2.2 artikulua:

“2. La Unión ofrecerá a sus ciudadanos un espacio de libertad, seguridad y justicia sin fronteras interiores, en el que esté garantizada la libre circulación de personas conjuntamente con medidas adecuadas en materia de control de las fronteras exteriores, asilo, inmigración y de prevención y lucha contra la delincuencia.”²

Egoera hau prozesu luze baten emaitza da. Orain, ASJEren sorrera eta eboluzioa aztertuko ditugu, gero AEEA sakontzeko.

2.1 1957 Erromako Hitzarmena, 1975 Treviko Taldea. 1957-1992

¹ TURRILLAS ALLI, I., *Prevención de la delincuencia grave y organizada en la Unión Europea*, Editorial Dykinson, Madrid, 2016, 35 or.

² Lisboako Tratatuaren, 2.2 artikulua.

1950eko hamarkadatik hona, barne eta justizia asuntoen estatuen arteko lankidetzaren mota ezberdinak eman dira: Bilateralak, erregionala (Europako Kontseiluaren baitan, adibidez) eta mundiala (NBERen baitan).

EBn, ordea, berriagoa da. Izan ere, 1957ko Erromako Hitzarmenean, bere helburuen artean pertsonen arteko zirkulazio librea finkatu bazen ere, ez zen neurririk hartu mugen, inmigrazioaren edo bisatuen gaitan. Zirkulazio librea eremu ekonomikora mugatu zen, europar merkatua sortzeko: salgaien zirkulazio libre eta aduanen bateratasunarekin (Napoleseko Konbenioa, 1967) eta langileen zirkulazio librearekin.

1975tik aurrera, era gradualean garatzen joan zen gobernuen arteko elkarlana inmigrazio, asilo eskubide eta kooperazio polizial eta judizialaren esparruetan. Hori bai, Europako Komunitateen eremu juridikotik kanpo geratu ziren. Era informalean, jakintza eta informazioa partekatzea zen lankidetzaren talde honen helburua.

Talde honen izena Treviko taldea zen, eta urte horretan jaio zen, Erromako Europar Kontseiluak Justizia eta Barne ministeritzen biltzar bat eratu behar zela erabaki zuenean. Horrela, hiru mailako antolaketa eratu zen: lehena ministeriala, bigarrena goi funtzionarioena eta azkenik lan taldeena.

“En una de sus primeras reuniones, celebrada en Roma en diciembre de 1975, se acordó que los Ministros de Interior o equivalentes llevaran a cabo encuentros para discutir asuntos de su competencia, en particular todo lo relacionado con el mantenimiento de la ley y el orden. A partir del año siguiente se sumaron los Ministros de Justicia, plantando la semilla del actual Consejo de justicia y asuntos de interior (JAI). Los ministros formaron una red de colaboración entre las Administraciones nacionales al margen de la Comunidad Económica Europea, conocida como el Grupo de Trevi.”³

1977an bi talde eratu ziren, eta haien bi eginkizun nagusiak nagusiak terrorismo internazionala eta barne segurtasuna ziren, baina 1985an bere konpetentziak zabaldu ziren eta inmigrazio ilegala eta delinkuentzia antolatua barnebildu zituen.

1984tik aurrera, Barne eta Justizia ministroak seihilekoan behin elkartzen hasi ziren, lankidetzaren polizial eta judizialaz, aduanaz eta pertsonen zirkulazio libreak ideiak elkarbanatzeko.

³BORRAJO INIESTA, I., *El espacio de libertad, seguridad y justicia: origen, evolución y configuración actual*, Aranzadi, Zizur Txikia, 2016, 6 or.

Talde hauek lankidetzaren hasiera izan ziren, baina oraindik gabezia asko zituzten. Hasteko, estatuen arteko kooperazioa ematen zen, baina ez zen Komunitate Europarrean lan bateraturik egiten, eta horrek estrukturarik ez izatea ekartzen zuen. Gainera, Europar Parlamentua eta Parlamentu nazionalak ez zuten hartutako neurriak gainbegiratzeko aukerarik. Beraz, segurtasun espazioan defizit bat eman zen, askatasun espazioan egindako aurrerapausoak ez zirelako progresiboki ere arlo horretan eman.

1985an Frantziak, Alemaniak eta Beneluxek Schengenekoa akordioa sinatu zuten, pertsonen libre zirkulazioa sustatzeko eta migrazioen kontrolari ekiteko, baina akordio hau aurrerago bihurtu zen erabakigarria EBko errealitatean. Izan ere, 1986an anbizio handiko proiektu bati eman zitzaion hasiera: Europako Agiri Bakuna. Erromako Itunari egiten zitzaion lehen erreforma garrantzitsua izan zen, eta Maastrichten aurrekari bezala agertzen zaigu. Europar merkatu komunetik merkatu bakarrera salto egiten da, 1992ko abenduaren 31rako herrialdeen arteko muga fisika, tekniko eta fiskalak ezabatzeko asmoz. Honek Europako Erkidegoari ahalmenak ematen zizkion barne merkatuan neurriak hartzeko.

“El objetivo de un mercado interior implicará un espacio sin fronteras interiores, en el que la libre circulación de mercancías, personas, servicios y capitales está garantizada de acuerdo con las disposiciones del presente tratado”⁴

Hala ere, pertsonen inguruko muga eta kontrolen proposizioak ez zuten aurrera egin. Europako Agiri Bakunaren 7. Deklarazio Orokorrak eta 2. Deklarazio Politikoak 8A artikulua kontraesan eta estatuei arlo hauetan neurriak hartzeko aitortzen zizkien klausulak zituzten.

Europako Agiri Bakunak, beraz, inflexio puntu bat izan zen estatuen arteko elkarlanean. Agiriaren bidez sortutako lantaldeek eboluzio hau kontuan hartu zuten eta Komisioaren ordezkariak (begirale moduan) barne hartu zituen. Gainera, *ad hoc* Immigrazio taldea eta Drogen Aurkako Europar Komitea 1986an Europar Kontseiluak kudeatzen hasi zituen.

Beraz, Europako Agiri Bakunak pertsonen zirkulazio librea beharrezkotzat hartzen zuelakoan, eta arlo honetan aurrerapausoak beharrezkoak zirelakoan, Schengenekoa Akordioa (zeinak izaera orokorra zuen) osatzeko Schengenekoa Akordioa aplikatzeko Hitzarmena sinatu zuten 1985ean Akordioa idatzi zuten estatuek. Honek ere polizia eta

⁴ Europako Ekonomia Erkidegoa, 8A artikulua, Europako Agiri Bakunaren bidez sartua 1986

aduanako kooperazioa bultzatu zuen, esturuktura komunitarioak eratuz, lana erraztu eta sinplifikatzeko (Schengen Informazio Sistema, SIS).

“Algunos Estados miembros adoptaron textos más vinculantes en el decenio de 1980: por ejemplo, el Acuerdo de Schengen en 1985 y el Convenio de ejecución de Schengen en 1990, que crearon nuevas estructuras operativas, para garantizar, entre otras cosas, la cooperación policial y aduanera (Sistema de Información de Schengen, SIS). Fue entonces cuando se reveló necesario integrar en una estructura global el opaco sistema de los grupos de concertación: se trataba no sólo de aumentar la eficacia de las medidas adoptadas por los Estados miembros en los terrenos de justicia y asuntos de interior, sino también de coordinar el trabajo de todas estas organizaciones, evitando así la duplicación de tareas.”⁵

Barne mugeko kontrolak kentzeak kontrol horiek kanpo mugetara eramatea suposatzen zuen. Gainera, estatuek lege harmonizazio prozesu bati ekin behar zioten, pertsonen zirkulazio librea baldintzatzen zuten disposizioen inguruan, eta Schengen eremutik kanpoko immigrazio ilegala hobe kontrolatzeko neurriak hartu.

Schengenek ere lankidetzaren penala sustatzeko arauak biltzen zituen, bai laguntza judiziala materia penalean, bai estradizio eta sententzien betearazpenean.

Schengen sistema 1995ean sartu zen indarrean, eta momentu horretarako 5 estatu sortzaileei Italia (1990), Espainia eta Portugal (1991) eta Grezia (1992) batu zitzairen. 1995an Austria batu zen eta 1996an eskandinaviar herrialdeak (Danimarka, Suedia eta Finlandia), azken hauekin EBko ez zeuden Norvegia eta Islandia sartu zirela.

Schengeneko akordioa EBko marko juridikora 1999an sartu zen, Amsterdameko Hitzarmenarekin batera, eta 2004az geroztik beste 15 estatuk sinatu dute.

2.2 1992-1999 Maastrichtetik Amsterdamera. EBko 3 zutabeak

Maastrichteko ituna 1992an sinatu zen, eta 1993ko azaroan sartu zen indarrean. ASJEn sorreran berebiziko garrantzia izan zuen. Hirugarren zutabea sortzen da, izan ere, Justizia eta Barne politikako arloetako elkarlana EBko dimentsioan sartzen da.

⁵ “Establecimiento progresivo de un espacio de libertad, seguridad y justicia”. EUR-Lex

Beraz, hiru zutabeko egitura sortzen da. Lehen zutabea Europako Erkidegoari dagokio, non merkatu bakarreko disposizioak aurkitzen diren. Bigarrenak Kanpo Politika eta Segurtasun Komunekeo gaiak bildu zituen, eta azkenik ASJeren aitzindaria sortu zen, aurretik aipatutako Justizia eta Barne Asuntuetako lankidetzaz zutabea. B artikuluan agertzen zaigu lehenbizi, eta gero VI Tituluan garatu zen, “K” artikuluetan.

Kooperazio honi ekiteko arrazoiak orokorrak dira eta jada identifikatu ditugu. Lehenbizi, herritarren zirkulazio librea baimendu eta bermatzeko beharra, mugen kontrol horien faltak suposatzen dituzten mehatxuei aurre egitea (terrorismo supranazionala eta delinkuentzia antolatua kontrako borroka), giza eskubideen eta funtsezko askatasunen errespetua sustatzea estatu kideetan eta europar espazio judizial batera ailegatzeko pausuak ematea.

Zutabeen antolaketa honek bai funtzionamenduan bai instituzionalki ezberdintasunak egotea dakar. Horrela, hirugarren zutabea, EBJA-ren jurisdikzioak ez du derrigortasunik, Estatu Kideen oniritzia beharrezkoa du. Gainera, Kontseiluaren aktuazioa posible izateko estatu guztien adostasuna beharrezkoa izango da, lehen zutabea gehiengo kualifikatuarekin aski delarik. Honek arlo bakoitzak estatuen subiranotasunean duen eragina islatzen du.

Tratatuak Parlamentua ere alde batera uzten du. Kontseiluak kontsultatu behar du, baina praktikan batzuetan eta *a posteriori* gertatzen da hori. Beraz, gertatzen ziren eztabaidetatik kanpo geratzen zen.

Arlo normatiboan ere ez zen asko aurreratu. EB-k ez zuen potestaterik, hainbat figura zeuden baina ez zuten efekturik sortzen.

“Tampoco favoreció el proceso el cauce normativo elegido. Concretamente, el Título VI del Tratado UE estableció tres instrumentos jurídicos: la posición común, la acción común y el convenio.”⁶

Posizio komunek EBren gai bati buruzko iritzia edo ikuspegia definitzen zuen, eta akzio edo ekintza komunak soilik subsidiarioki aplikatzen ziren, EBren helburuak akzio komun bitartez estatuen akzio soilen bitartez baino hobeto lortzen zirenean.

⁶ FERNANDEZ ROZAS, J.C., “El espacio de libertad, seguridad y justicia consolidado por la Constitución Europea”, *Revista Jurídica Española La Ley*, 1867-1881 or., Madrid, 2004, 1870 or.

Hitzarmenak ere egin zitezkeen, zeinak EBJAri konpetentziak eman ahal zioten, baina ez ziren oso baliagarriak izan:

“Incluso los convenios entre los EEMM (que podían dotar al TJCE de ciertas competencias) fueron en la práctica un instrumento jurídico lento y relativamente inoperante”⁷

Hori bai, gure gaiaren inguruan aurrerapausoak eman ziren. 1996an Europako Estradizio Hitzarmena egin zen. Estatuen kideen arteko estradizioak errazteko ideia zuen, eta AEEA indarrean sartu arte 12 estatu kideek horren arabera aritzen ziren, estradizioari dagokionez.

Hirugarren zutabe honek ez zituen espero ziren emaitzak izan, ikusi dugunez, batez ere Schengen sisteman (oraindik EBren egituratik kanpo) eman ziren aurrerapenekin konparatuta. Horregatik, erreformaren beharra antzeman zuten estatu kideek, eta hori 1996ko Gobernuarteko Konferentzian, eta batez ere, Amsterdameko Hitzarmenean eman zen.

2.3 Amsterdameko Hitzarmena: ASJEren sorrera

Amsterdameko Hitzarmena 1997ko urrian sinatu zen, eta 1999ko maiatzaren 1an sartu zen indarrean. Barne politika eta justizia eremuan aurrerapauso nabarmena izan zen, estruktura eta antolaketa instituzionalean erreformak eginez. Momentu horretan, ASJEa EBren helburu bilakatzen da, 2. artikuluan esaten den bezala: “Mantener y desarrollar la Unión como un espacio de libertad, seguridad y justicia, en el que esté garantizada la libre circulación de personas conjuntamente con medidas adecuadas respecto al control de las fronteras exteriores, el asilo, la inmigración y la prevención y la lucha contra la delincuencia;”⁸

Hitzarmen honek indarrean sartu zenetik 5 urtera EBren barnean zirkulazio librea finkatzea zen, aldi berean hiritarren segurtasuna bermatuz delinkuentzia antolatu eta terrorismoaren aurka eginez. Horretarako, anbizio handi eta konkretuagoak aurreikusi

⁷ MANGAS MARTÍN, A., LIÑÁN NOGUERAS DJ., *Instituciones y Derecho de la Unión Europea*, Tecnos, Madrid, 2014, 89 or.

⁸ Amsterdameko Hitzarmena, 2.art

ziren, aurreko proiektuekin konparatuta, horiek erdiesteko metodo eraginkorragoak erabiliko zirelarik.

Estruktura instituzionalari dagokionez, berritasun nabariak aurkitzen ditugu Amsterdameko Hitzarmenean. Izan ere, ASJEren arlo batzuk komunitarizatzen dira. Beraz, bi titulu ezberdinetan banatzen da:

IV Titulura igarotzen dira “komunitarizatzen” diren esparruak: bisak, kanpo mugak, asiloa, immigrazioa eta lankidetzak judizialak zibila. Lehen zutabera igarotzen dira, eta horren tresna juridikoak aplikatu zitzaizkien aurrerantzean: direktiba, erregelamendua, gomendioa eta irizpena. Hala ere, “komunitarizazio” hori partziala izan zen lehen 5 urteetan, izan ere, Komisioak ekimen-eskubidea estatu kideekin partekatzen jarraitu behar zuen, Kontseiluan erabakiak aho batez hartu behar ziren eta Parlamentua bakarrik kontsultatua izaten zen. Denbora hori igarotzean, Komisioak ekimen-eskubidearen monopolioa berreskuratu zuen, eta Parlamentuaren kompetentziak zabalduko ziren.

VI Tituluan, beraz, bakarrik lankidetzak polizial eta judizial penaleko disposizioak mantendu ziren. Gobernuartekoa izaten jarraitu zuen, baina zenbait aldaketekin. Amsterdamek hemen ere sartu zituen arrazismoa eta xenofobiaren prebentzioa. EBJAk kompetentzia jurisdikzional batzuk hartu zituen, Parlamentua kontsultatua izan zitekeen eta Komisioak arauen sorkuntzan pisua irabazi zuen, ekimen eskubide partekatuaren bidez batez ere. Beraz, gobernuarteko izaera hutsetik, elkarlan marko soil batetik arlo hauetan ekintza komun batera igaro zen.

Amsterdamen bidez, gainera, Schengen sistema EBren zuzenbidean integratu zen. IV eta VI tituluan sartu ziren arau eta erabakiak, bere arloaren arabera. Ministroen Kontseiluak onetsi zuen, baina hainbat klausularekin: Erresuma Batua eta Irlandaren kasuan opting-in klausula (partaidetza boluntarioa) eta Danimarkaren kasuan opting-out edo deskonexio boluntarioaren klausula

Honekin erlazionatzen da orduan sortutako “lankidetzak indartua”ren kontzeptua. Honen bidez, lankidetzak sendoago bat sustatu nahi zen estatu kideen artean, edozein motako Hitzarmenean hartutako erabakietan (betiere EBren helburuetako baten barruan) baina EBren kompetentzia eksklusiboetatik kanpo.

Tresna juridikoei dagokionez, lehen esan dugu “komunitarizatu” ziren arloei lehen zutabeko tresnak aplikatuko zitzaizkiela. Nobedadea, beraz, VI Tituluko iturrietan dago.

4 tresna aurreikusi ziren: Posizio Komuna, Erabaki Markoa, Erabakia eta Hitzarmena. Beraz, Maastrichteko Ekintza Komuna Erabaki Marko eta Erabaki berriek ordezkatu zuten. Hau 34.2 artikuluan aurkitzen dugu.

Posizio Komunak ez zuen aldaketarik izan, eta Hitzarmenei dagokienez, aldaketa nabarmen bat izan zuten, izan ere Estatu Kideen erdiak berretsita indarrean sartuko zirela erabaki zen.

Erabaki Markoak oso garrantzitsuak izan ziren, eta lan honi dagokionez berebiziko garrantzia dauka figura honek. AEEA tresna honen bitartez sartu zen Europar Zuzenbidean. Erabaki Markoa lehen zutabeko direktibaren baliokidea da. Bere helburua Estatu Kideen disposizio legal eta erreglamentarioak hurbiltzea da, eta hauei gida minimoak ematea. Hori bai, emaitzari dagokionez obligazioak eratzen dituzte, estatuek forma eta baliabideak erabaki ahal dituzten arren. Ez dute efektu zuzenik, eta bere obligazioa estatu kide guztietara zabaltzen da.

Erabakiak Erabaki Markoak jorratzen ez dituen materietarako bakarrik sortu ziren, beraz esaten da izaera erresiduala dutela horiekiko. Ez dute efektu zuzenik eta estatu guztiei ere zabaltzen da bere obligazioen indarra. Kontseiluak erabakiko du, gehiengo kualifikatuaren bitartez, noiz erabiliko den figura hau.

Produkzioan eta aplikazioan arreta jarriz gero, ondorioztatzen da erabiliena Erabaki Markoa izan dela, eta Direktibaren pare jarri da, arlo komunitarioarekin konparazioa eginez gero. Ezberdintasun nagusia, gobernuarteko zutabea izanik, efektu zuzenik eza da. Hori gero aldatu zen, baina Hitzarmena indarrean sartzean, ezberdintasun nagusitzen identifikatzen dugu.

Konklusio moduan, esan behar da Amsterdam fase erabakigarria izan dela ASJ Eren sorreran, eta Hitzarmenean aurreikusten ziren akzio eta neurriak aplikatzeko Kontseiluak eta Támpereko Biltzarrak EBn gai honi emandako garrantzia islatzen dute.

“Por esta razón, aunque sin olvidar los logros ya conseguidos, puede afirmarse que el tratado de de Amsterdam marcó una fase decisiva al establecer, como uno de sus objetivos más importantes, el mantenimiento y desarrollo de la Unión como un espacio de libertad, seguridad y justicia, modificando toda la estructura de cooperación establecida en el TUE, y disponiendo además las medidas que deberán ser adoptadas para su realización. Posteriormente los Consejos Europeos de Cardiff, y sobre todo de Viena, reafirmaron este

mismo objetivo, habiéndose aprobado un detallado plan de acción sobre la mejor manera de aplicar las acciones y medidas previstas en el Tratado de Ámsterdam. Como una etapa más dentro de ese proceso, aunque muy significativa, debe enmarcarse la Cumbre Europea de Tápere.”⁹

Támperen beste pauso bat eman zen, estradizioa azkartu eta errazteko asmoz. Ebazpen judizialen elkarrekiko aitortpenak prozedurak ezabatu eta estradizioa azkartzeko bideak jarri zituen. Handik bi urtera, Atxilotzeko eta Entregatzeko Europako Agindua sortu zen.

2.4 Lisboako erreforma

Lisboako erreforma AEEA sortu baina beranduago egin bazen ere, aipatzea garrantzitsua da, emandako aldaketa sakonengatik. 2007an sinatu eta 2009an sartu zen indarrean, Europako Konstituzioaren porrotaren ostean.

Aldaketa nabarmenena zutabeen ezabapena da, dualtasun juridiko eta instituzionalarekin bukatzeko. Europar Batasunaren Funtzionamenduari Buruzko Tratatuak Titulu bakarra izango du ASJErentzako, bostgarrena, eta bost kapituluetan banatzen da (disposizio orokorrak, muga kontrol-asilo-immigrazioa, lankidetzak judizial zibila, lankidetzak judizial penala eta polizia lankidetzak). Tratatu honen 67. artikulua azpimarratzen du EBk ASJE bat eratzen duela, betiere oinarriko eskubideak errespetatuz, eta artikuluen 2,3 eta 4 atalek askatasuna, segurtasuna eta justizia nola bermatuko dituen azaltzen dute, hurrenez hurren.

Zutabeen desagertzeak egiten du lehen 3. zutabeen kokatzen ziren materien “komunitarizazioa”, erregimen juridikoa bateratuz. ELSJ ren materiek izaera partekatua izango dute, eta EBko zuzenbideak lehentasuna eta eragin zuzena izango du horiengan. Gainera, legegintzako prozedura arrunta aplikatuko zaie, Parlamentuaren erabakitasuna igotzen delarik.

Bestalde, iturri berrien sistema aurreikusi zen. Horrela, Europar Batasunaren Funtzionamenduari Buruzko Tratatuaren 288. artikulua 5 tresna sartzen dira, ELJS osorako berdinak: erregelamendua, zuzentaraua, erabakia, gomendioa eta irizpena. Beraz,

⁹ VALLE GARAGORRI, R., “La Cumbre Europea Extraordinaria de Tápere”, *El Espacio de Libertad, Seguridad y Justicia*, Barne Ministeritza, Madrid, 2000, 147.or.

AEEA egiteko erabili zen tresna, erabaki markoa, ezabatzen da, eta zuzentaraua da bere ordeztu EBko gai guztietan erabiliko dena.

Beste arlo batzuetan ere egon dira berritasunak. EBJAri dagokionez, jurisdikzio orokorra ematen zaio ELSJren markoaren barruan aurrera eramandako aktoen interpretazio eta baliozkotasunaren inguruan. Oinarrizko eskubideen arloan, EBOEGri hitzarmenen balio juridiko bera ematen dio, beraz, ASJEren arloan arautzean edo politikak aplikatzean, oinarrizko eskubideak tentuz errespetatu behar dira.

III ATXILOLTZEKO ETA ENTREGATZEKO EUROPAKO AGINDUA

3.1 Testuingurua eta kokapena

Tampereren ostean Nizako Hitzarmena sinatu zen, baina honek ez zuen gure materialen aldaketa nabarmenik ekarri. Estradizioa ordezkatzeko lanak bideratuta zeuden jada, baina politiki egiten zuten aurrera. Gertakari batek azkartu zuen prozesua: New York eta Washingtoneko 2001eko irailaren 11ko atentatuak. Honek estatuen artean terrorismo transnazionalaren kontrako neurriak hartzeko beharra piztu zuen, eta testuinguru honetan, AEEA jaio zen, 2002an.

Tresna hau estradizio prozedimendua (bere moteltasun eta gobernuen parte hartzeagatik kritikatu) ordezkatzera heldu zen. Horrela, AEEAekin gobernu kontrola saihesten da, auzi politikoak alde batera utziz, kontrol judizial batera ailegatzeko, erreklamatu izan den pertsonaren funtsezko eskubide eta askatasunen defentsan oinarritua.

Lehen adierazi dudana bezala, ASJEko lankidetzak judizial penalaren barruan kokatzen da, VI Tituluan. 29. artikuluko helburuek ekintza komunak aurreikusi zituzten, 30. artikuluan muga eta polizia lankidetzarako eta 31. artikuluan, lankidetzak judizial penalerako.

Azkeneko honetan, Eurojusten sorreraz aparte (zeinak koordinazio lanak egingo zituen Estatu Kideen organo jurisdikzionalen arteko kausa penal eta exekuzioetan, organo horien arteko gatazka jurisdikzionalak prebenitzeaz ere arduratuko zelarik) 31.1eko b

atalean “La facilitación de la extradición entre Estados miembros;”¹⁰ daukagu, eta helburu hau betetzeko tresnatzat AEEA sortu zen.

AEEA lankidetzaz judicial penalaren ikur bilakatu da, “no solo con respecto a la orden europea de detención y entrega, buque insignia de esta cooperación”¹¹ elkarrekiko konfiantza printzipioan oinarrituta.

“Como indica la Exposición de Motivos de la Ley 13/2003, de 14 de marzo, sobre la orden europea de detención y entrega, los mecanismos tradicionales de cooperación judicial tienen que dejar paso a una nueva forma de entender las relaciones entre los sistemas jurídicos de los Estados miembros basada en la confianza y, por ende, en el principio de reconocimiento mutuo.”¹²

Konfiantza kasu honetan izango litzateke Estatu kideen arteko araubidea ezberdina izanik, hura baliokide izatea berme eta babes neurriei dagokienez. Elkarrekiko konfiantza hori bereziki lotuta dago gero azalduko ditudan 3 printzipio gidarietako batekin, elkarri aitortzeko printzipioarekin hain zuzen ere.

“El principio del reconocimiento mutuo se asienta sobre un fundamento: la confianza mutua entre los Estados miembros en cuanto a que, sin perjuicio de la mayor o menor conveniencia de aproximación de los sistemas punitivos nacionales, en su doble dimensión sustantiva y procesal, las diversas normativas internas deben ser consideradas equivalentes de cara a satisfacer los preeminentes valores e intereses jurídicos en presencia.”¹³

3.2 Kontzeptua

AEEA Kontseiluaren 2002/584/JAI Erabaki Markoan dago araututa, 2002ko ekainaren 13koa. Honek 1.1 artikuluan horrela definitzen du:

¹⁰ Nizako Hitzarmena, 31.artikulua

¹¹ MANGAS MARTÍN, A., LIÑÁN NOGUERAS DJ; *Instituciones y Derecho... op. cit.*, 104 or.

¹² ATC 139/2005, 05.04.2005

¹³ SÁNCHEZ LEGIDO, A., *La euro-orden, el principio de doble incriminación y la garantía de los derechos fundamentales*, Albacete, 2007, 3 or.

“La orden de detención europea es una resolución judicial dictada por un Estado miembro con vistas a la detención y la entrega por otro Estado miembro de una persona buscada para el ejercicio de acciones penales o para la ejecución de una pena o una medida de seguridad privativas de libertad.”¹⁴

Gavilán Rubiok horrela garatzen du definizioa:

“La orden europea de detención y entrega es una resolución de carácter judicial, que es dictada en un Estado miembro de la Unión Europea, cuyo objeto es la detención y entrega por otro Estado miembro de una persona que es reclamada porque se ejercita contra ella acción penal, y es requerida o bien para su enjuiciamiento o bien para la ejecución de una pena o medida de seguridad privativa de libertad (cumplimiento de una condena). Se trata de un título judicial unificado para los Estados miembros de la Unión Europea, que se cumplimenta siguiendo un formulario, un instrumento jurídico que se basa en el reconocimiento mutuo de resoluciones judiciales en materia penal.”¹⁵

AEEAren objektua arauketa eratzea da, arauketa horren bitartez Estatu Kide batek beste Estatu Kide baten agente judizial batek igorritako europear atxiloketa agindu bat jasotzean exekutatu behar duen, agindu horren objektu den pertsonaren atxiloketa, nahitaezko lekualdatze eta entrega egitera derrigortuta dagoelarik.

Derrigortasun hori 1.2 artikuluan adierazten den elkarri aitortzeko printzipiotik eta Estatu Kideek hartutako konpromisotik dator. Ebazpen judizialak elkarri aitortzeko printzipioa Cardiffeko Europar Kontseiluan aipatu zen lehen aldiz, baina Támperen finkatu zen behin betiko, eta berebiziko garrantzia eman zitzaion:

“Un mejor reconocimiento mutuo de las resoluciones y sentencias judiciales y la necesaria aproximación de las legislaciones facilitaría la cooperación entre autoridades y la protección judicial de los derechos individuales. Por consiguiente, el Consejo Europeo hace suyo el principio del reconocimiento mutuo que, a su juicio, debe ser la piedra angular de la cooperación judicial en materia civil y penal en la Unión.”¹⁶

¹⁴ 2002/584/JAI Erabaki markoa, 1.1 artikulua

¹⁵ GAVILÁN RUBIO, M., “La cooperación judicial y policial europea. La orden europea de detención y entrega”; *Anuario Jurídico y Económico Escurialense*, 189-208 or., Madrid, 2014, 196or.

¹⁶ Támpereko Kontseilua, Presidentziaren ondorioak, 1999ko urria, 33. atala

Printzipio hau AEEAren funtsa da. Hala ere, printzipio hau aplikatzerako orduan traba bat egon da, Estatu kideen arau penalen arteko harmonizazio falta hain zuzen ere. Harmonizazioaren bidez lortuko litzateke elkarri aitortzeko printzipioa *de facto* aplikatzeko beharrezkoa den elkarrekiko konfiantza, Alonso Moredaren iritziz:

“Ahora bien, el camino para alcanzar el grado de confianza recíproca que permita la aplicación efectiva del principio de reconocimiento mutuo se debe centrar en la armonización o aproximación del Derecho procesal y materia penal de los Estados miembros, lo cual implica la necesidad de adoptar una acción legislativa armonizadora de la Unión, dirigida a garantizar un elevado nivel de protección de los derechos de las personas en todo su territorio”¹⁷

Horrela, harmonizazio edo hurbilpen normatiboa ez da berebiziko baldintza elkarri aitortzeko printzipiorako, baizik eta bi mekanismo osagarri dira europar espazio judiziala eratzeke bidean.

Támperen bigarren mailan geratu bazen harmonizazioaren ideia, Lisboako Hitzarmenak elkarri aitortzeko printzipioaren pare jarri zuen. Praktikan, ordea, ez da lan erraza Estatu kideen araubide penalak hurbiltzea. Izan ere, arlo hau Estaturen subiranotasunaren nukleoan dago, non legedien arteko ezberdintasunak handiak diren. Ezberdintasun hauek arrazoi kultural, historiko eta juridikoengatik azaltzen dira. Sistema juridikoek horien barne koherentziak eraginda, distortsioak eragin ditzake bakarrik arau batzuk aldatzeak. Hortaz, eta subsidiarioratasun printzipioari jarraiki, hurbiltze normatiboa bakarrik elkarri aitortza hori eten dezaketen desberdintasunen gutxitzea behar litzateke.

Hortaz, ikusten dugu elkarri aitortzeko printzipioa erlatiboa dela gaur egun, Fontestad Portalésesek dioen moduan, kontrol jurisdikzionala eta entregaren ukatzea aurreikusten direlako Erabaki Markoan:

“Quizás por ello, tanto la Decisión Marco como la Ley 3/2003 que la regulan, han optado por un reconocimiento mutuo relativo puesto que, por un lado, el reconocimiento de las resoluciones judiciales no se realiza sin control jurisdiccional previo y, por otro lado, se

¹⁷ ALONSO MOREDA, N., *Cooperación judicial en materia penal de la Unión Europea, instrumento privilegiado de cooperación*, Aranzadi, Zizur Txikia, 2016, 185-186or.

admiten causas de denegación de la entrega, tanto de carácter obligatorias como facultativas.”¹⁸

Espainia izan da lehen estatua AEEA bere ordenamenduan sartzen, 2003ko martxoaren 14ko 3/2003 legearen bitartez (atxilotzeko eta entregatzeko europako aginduaren legearen ingurukoa), zeina 2014ko azaroaren 20ean indargabetua izan zen, 23/2014 legeak ordezkaturata (Europar Batasunean zigor ebazpenak elkarri aitortzeari buruzkoa). Egun, Estatu kide guztiek bere obligazioarekin bete dute eta AEEA aplikagarri zaie denei.

3.3 Aplikazio eremua

“Para abordar el tema del ámbito de aplicación de la Ley, conviene distinguir tres perspectivas: el ámbito material, relativo a los hechos y a las resoluciones que dan lugar a que la orden europea de detención y entrega pueda ser emitida y ejecutada; el ámbito temporal, que determina la vigencia cronológica de la ley, particularmente el momento de su entrada en vigor, así como el régimen transitorio hasta la plena implantación del sistema de la “euro-orden”; y por fin, el ámbito espacial, que nos revela en cuántos Estados de la Unión Europe ase van a poder emitir y ejecutar las órdenes de detención y entrega”

Azken bi aspektuak oso erlazionatuta daude, ikusiko dugunez, AEEA guztiz ezartzen den arte, EBren lurraldeetan espazio eremua aldatuz joan zen denborak aurrera egin ahala.

3.3.1 Espazio eta denbora eremua

AEEA Europar Batasuneko Estatu kideen artean aplikatzen da. Hala ere, zenbait gaietan EBk elkarlan estua duen bi estatuetara zabaldu nahi da, Norvegia eta Islandiara. Bi estatu hauek AEEAra atxikitu nahi dute, haiek parte diren Schengen Hitzarmenaren garapena delakoan, izan ere, Schengenek arautzen zuen estradizioa ordezkatzera zetorren. Kontseiluak, ordea, ez zuen Schengenaren garapen bat bezala kontsideratu, AEEAren

¹⁸ FONTESTAD PORTALÉS, L., “La orden europea de detención y entrega: origen y principios rectores”, *Revista de derecho procesal*, 239-243 or., Madrid, 2011., 241or.

esentzia den elkarri aitortzeko printzipioa bakarrik EB bezalako testuinguru batean aplikatu daiteke, non estatuek proiektu politiko, ekonomiko eta juridikoa partekatzen duten.

Hori konpentsatzeko, Kontseiluak Islandia eta Norvegiari AEEAren mekanismoaren parte izatera gonbidatu zien, baina ez Schengenaren garapen bezala, baizik eta EB eta bi estatuen arteko akordio berezi baten bitartez. “La Decisión del Consejo, de 10 de julio de 2001, modificada por otra de 19 de diciembre de 2002, autoriza a la Presidencia del Consejo a negociar acuerdos con Noruega e Islandia relativos a la cooperación judicial en materia penal sobre la base de los artículos 24 y 38 del TUE.”¹⁹ Horrela, 2006an Vienan akordioa sinatu zuten, baina indarrean sartuko da Europar Kontseiluaren Idazkari Nagusiak akordioak aurreikusten dituen baldintzak betetzen direla ondorioztatzen duenean. Oraingoz ez da eman, Lisboatik hona aurrerapauso batzuk eman diren arren. Traba nagusia akordioan Islandia eta Norvegiari ematen zaizkio kontzesio batzuk dira, zeinekin hainbat Estatu kidek erreserbak azaldu dituzten.

Denbora eremuari dagokionez, Erabaki markoaren 34.1 artikulua adierazten du Estatu kideek 2003ko abenduaren 31 baino lehen hartu behar zituztela beharrezko neurriak bere ordenamenduan euroagindua txertatzeko. Gainera, bere eraginkortasuna aurreratzeko aukera eman zen (hori bera egin zuten beste estatuekiko), Kontseilu eta Komisioari aldaketen testua igorrita. Frantzia, Alemania, Erresuma Batua, Portugal, Belgika, Luxenburgo eta Espainiako Justizia Ministroek 2002ko otsailean AEEAren inguruko aldaketak 2003a baino lehenago egiteko konpromezua hartu zuten, baina bakar batek ere ez zuen bete.

Erabaki markoaren 32. Artikulua arabera, estatuek hartutako neurriak 2004 lehen egunean hasiko ziren aplikatzen. Horretarako, beharrezkoa zen orduko 15 Estatu kideek bere garapena egin izatea. Praktikan, ordea, bakarrik Espainiak, Portugalek, Danimarkak, Finlandiak, Suediak eta Irlandak egin zuten. Beste 9 estatuetan aplikagarri izan zen 2004 urtearen bukaeran, Italiaren salbuespenarekin, non 2005eko maiatzaren 14etik aplikagarri den.

2004eko maiatzaren 1ean EBean sartu ziren 10 estatuei dagokienez, sarrera egunean bertan behar luke aplikagarri AEEA, baina bakarrik Zipre, Eslovenia, Hungaria, Lituania

¹⁹ CEDEÑO HERNÁN, M., *La orden de detención y entrega europea: los motivos de denegación y condicionamiento de la entrega*; Aranzadi, Zizur Txikia, 2011, 7or.

eta Poloniaren kasuetan izan zen horrela.. Beste bost estatuek ez ziren asko berandutu eta Txekiar Errepublika izan zen azkena, 2005eko urtarrilaren 14ean.

Amaitzeko, Errumaniak eta Bulgarian, 2007az geroztik, eta Kroazian, 2013az geroztik aplikagarri da Erabaki markoa, Batasunean sartu baino lehen ekin ziotelako bere barne ordenamenduan aldaketak egiteari.

Gaur egun, AEEA aplikagarri da EBko 28 estatuetan, baina konstituzionaltasun arazoak egon dira hainbat estatuetan, bertako nazionalen entregaren inguruan.

“El principal escollo se ha detectado en una de las novedades más destacables de la Decisión Marco 2002/584/JAI: la entrega de nacionales propios del Estado de ejecución de la orden. Algunos de los Estados miembros tenían normas constitucionales que prohibían o limitaban la extradición de sus propios nacionales y esta previsión, claro es, complica la transposición de esa novedad al ordenamiento interno.”²⁰

Poloniako Auzitegi Konstituzionalak, Alemaniako Auzitegi Konstituzional Federalak eta Zipreko Auzitegi Gorenak AEEA aplikatzeko disposizio batzuk Konstituzioaren kontrakoak zirela deklaratu zuten.

Poloniak eta Ziprek bere Konstituzioak aldatu behar izan zituzten, arauaren transposizioa egokia izateko. Horrela, Poloniak bere Konstituzioko 55. Artikulua erreformatu egin zuen, eta 2006 urtearen amaierako konstituzio kontrakotasun arazoa gaindituta zegoen. Ziprek 11. Artikulua erreformatu zuen, baina erreserba batekin: AEEAren exekuzio prozedimendua bakarrik 2004ko maiatzaren 1etik egindako delituengatik izango zen aplikagarri, Zipre EBn sartu zen egunetik aurrera hain zuzen ere. Honek beste arazo bat suposatzen du, Erabaki markoaren kontra doalako erreserba hau, eta Zipreko Konstituzioak berak batasunaren zuzenbidearen nagusitasuna onartzen duelako.

Alemanian, ordea, transposizio legearen erredakzio berri bat egin zen, Auzitegiaren sententziak egindako argibideak jarraituz. Araugileek ez zuten planteatu Konstituzioaren 16.2 artikulua erreforma bat egitea, artikulua horrek adierazten zuen debekua (bertako nazionalak entregatzekoa) ez zelako absolutua, 2000. Urtean egindako erreformak salbuespen batzuk aurreikusten zituelako EB eta Nazioarteko Auzitegiekiko. 2006ko

²⁰ CEDEÑO HERNÁN, M., *La orden de detención... op. cit.*, 2or.

uztailean legearen aldaketa efektiboa egin zen eta horrela ziurgabetasun egoera horri bukaera eman zitzaion.

3.3.2 Eremu materiala. Egozgarritasun bikoitzaren printzipioa

Erabaki markoaren 2.1 artikulua bere eremu materiala era orokor batean definitzen du. Horrela, AEEA aplikagarri izango da egitateak Estatu igorlearen legean gutxienez 12 hilabeteko gehieneko zigorrarekin zigortzen denean, edo gutxienez 4 hilabeteko askatasun gabetzeko zigorraren betearazpenerako baldin bada.

Gero, ordea, egozgarritasun bikoitzaren printzipioa agertzen zaigu. Izan ere, Erabaki markoak ez du printzipio hau mantentzen, baina ez du era absolutuan ezabatzen, bien arteko sistema bat eratzen du, non egitate batzuetarako debekatzen duen printzipioa aplikatzera, eta beste batzuetarako ahalmena ematen duen printzipio bera exijitzera:

Alde batetik, 2.2 artikulua supostuan ez dago egozgarritasun bikoitzaren kontrolik, eta bi baldintzen aldiberekotasuna exijitzen du: kualitatiboa, artikulua horretan zerrendatzen diren 32 delituetako bat izatea, eta kuantitatiboa, Estatu igorlean delitu horrek gutxienez 3 urteko askatasun gabetzaileko zigor edo neurriak aurreikusten direnean.

Bestalde, 2.4 artikuluko supostuan aurreikusten da egozgarritasun bikoitza exijitzeko ahalmena, kasu honetan ere bi baldintzen aldiberekotasuna eskatzen delarik: kualitatiboa, 2.2ko zerrendatik kanpo dagoen delitu bat izatea, eta zigorrak 2.1eko askatasun gabetzaileko neurrikoak izatea (12 hilabete akzio baterako eta 4 hilabete betearazpenerako).

Sistema honek kritika ugari jaso ditu. Adibidez, 2.2ko delituen aukeraketa ez da egokia izan, Fontestad Portalésentzat:

“En primer lugar, se critica la propia elaboración de la citada lista en la que se incluyen delitos de gravedad menor como, por ejemplo, el tráfico ilegal de especies vegetales mientras que se dejan fuera delitos de gravedad constatada como los delitos contra la seguridad de la aviación civil o contra la seguridad de la navegación marítima.”²¹

²¹ FONTESTAD PORTALÉS, L., “La orden europea... *op. cit.*, 242or.

Alonso Moredak, ordea, arazoa zerrenda bera dela eta arreta egitatearen larritasunean jarri behar dela dio, elkarri aitortzeko printzipioa eta elkarrenganako konfiantzarekin baliokide izateko:

“En nuestra opinión el mayor error de este sistema de «lista positiva» es la lista en sí. Hubiera sido deseable que en lugar de una lista con carácter de *numerus clausus* se hubiese establecido únicamente un umbral mínimo de pena, de forma que se prescindiese totalmente de la doble incriminación para aquellas conductas que conlleven una gravedad suficiente.”²²

Zerrenda positiboaren ordez, zerrenda negatibo bat proposatzen dute autore askok, Komisioak bere Proposamenean egin zuen modura. Horrela, Estatuak haien ordenamendu juridikoetan aurreikusten ez diren baina beste Estatu kide batzuetan aurreikusten diren egitateak zerrenda horretan sartuko lituzkete:

“La Comisión basaba su propuesta en un sistema de lista negativa, en virtud del cual cada Estado miembro podía establecer una lista exhaustiva de conductas en relación con las cuales se negaría a ejecutar una orden de detención por considerar su incriminación contraria a los principios fundamentales de su ordenamiento jurídico.”²³

Espainiak Erabaki markoaren sistema bera jarraitu du, eta 2.2 artikuluko zerrendaren transposizio literala egin du.

3.4 Agintaritza judizial eskudunak

Esan dugun bezala, AEEAk fase administratiboa ezabatzen du, elkarri aitortzeko printzipioan oinarrituta.

Horrela, 6. artikulua xedatzen du Estatuaren barne zuzenbideak ezarriko dituela zein agente judizialek izango duten igorpen eta exekuzio ahalmena, “euroagindua”ren inguruan, eta Kontseiluaren Idazkaritza Orokorrari informazio hori pasako dio.

Espainiaren kasuan, legeak honakoa adierazten du:

²² ALONSO MOREDA, N., *Cooperación judicial... op. cit.*, 299or.

²³ SÁNCHEZ LEGIDO, A., *La euro-orden...* op. cit., 23 or.

“1. Son autoridades judiciales competentes para emitir una orden europea de detención y entrega el Juez o Tribunal que conozca de la causa en la que proceda tal tipo de órdenes.

2. La autoridad judicial competente para ejecutar una orden europea de detención será el Juez Central de Instrucción de la Audiencia Nacional. Cuando la orden se refiera a un menor la competencia corresponderá al Juez Central de Menores.”²⁴

Beraz, kasuaz ezagutzen duen epaile edo auzitegiak izango du eskumena AEEA igortzeko. Exekuzioa egiteko, ordea, ANeko Instrukzioko epaile zentrala izango da agintaritza eskuduna. Hori bai, atxilotutako pertsonak bere entrega baimentzen ez duenean, errekurtoa tarteratu dezake, eta orduan ANeko zigor arloko sala izango da erabakia hartuko duena, 23/2014 legeko 51.8 artikulua araber.

Erabaki markoaren 7. artikulua Estatuei agintaritza zentral bat izendatzeko aukera ematen die, eskumena daukaten agintaritza judizialak laguntzeko. Agintaritza honen izaera ez da aipatzen, eta Espainiak Justizia Ministerioa izendatu zuen (23/2014 6.3 artikulua). Castillejo Manzanaresean iritiz, erabaki honek oztopoak jarriko ditu, bere izaera politikoarengatik:

“Además, cada Estado miembro podrá nombrar una autoridad central, la que, si se la autoriza, debe responsabilizarse de la transmisión y recepción prácticas del mandamiento de detención europeo, así como de toda correspondencia oficial relacionada con el mismo. España ha nombrado al Ministerio de Justicia, lo que, sin duda alguna, no puede ocasionar más que retardos cuando sea necesaria su intervención.”²⁵

3.5 Forma eta edukia

Erabaki markoaren 8.1 artikulua AEEAk eduki behar duen informazioa adierazten du, eta formalki eranskinean dagoen inprimakian bidali beharko dela dio. Eskatzen den informazioa hurrengo hauen ingurukoa izango da: bilatutako pertsona, agente judizial igorlea, agindua oinarritzen den sententzia, atxiloketa agindu edo beste edozein erresoluzio judizial, delituaren tipifikazio eta natura, egitateen deskribapena, zigorra eta

²⁴ 23/2014 legearen 35.artikulua, azaroaren 20koa, EBko erresoluzio penalen elkarrekiko aitortzaren ingurukoa

²⁵ CASTILLEJO MANZANARES, R., *El procedimiento español para la emisión y la ejecución de una orden europea de detención y entrega*; Aranzadi, Zizur Txikia, 2018, 6 or.

ahal baldin bada, delituaren beste edozein inguruabar. 2009/299/JAI Erabaki markoak eranskinean aldaketa bat egin zuen, gero aztertuko ditugun auzi-iheseke epaien inguruko d) letra hain zuzen ere.

Bestalde, 8.2 artikulua betearazpenean, AEEA exekuzio-Estatuaren hizkuntza ofizial (edo ofizialetako batean) bidali beharko da. Hala ere, Estatu kideek Kontseiluaren Idazkaritza Orokorrari adierazpen bat helaraziz EBren hizkuntza ofizialetako batzuk ere ametitu ahal dituzte.

3.6 Entrega prozedura

Entregaren prozeduran igorpen eta transmisioa dauzkagu lehenengo, eta bigarrenik entregaren exekuzioa.

3.6.1 Igorpen eta transmisioa

Erabaki markoaren 9.1 artikulua azaltzen du, bilatzen den pertsonaren kokapena ezaguna bada, agintaritza judizial igorleak exekuzio agintaritza judizialari zuzenean jakinarazi ahalko diola.

Praktikan, ordea, kasu gehienetan ez da pertsonaren kokapena ezagutzen, “por tratarse en su inmensa mayoría de personas en paradero desconocido, que tratan de eludir la justicia,”²⁶ agintaritza judizialak beharrezkoak dituen bilaketak egingo ditu informazio hori biltzeko, batez ere Europar Sare Judizialaren bitartez (10.1 artikulua).

Edozein kasutan, agintaritza judizial igorleak bilatzen den pertsonaren deskribapen bat sartu dezake Schengen Informazio Sistemari (gaur egun, SIS II) eta beharrezko informazioa gehitzen badiu, AEEAren baliokidetzat hartuko da.

SIS erabiltzea posible ez bada, 10.3k aukera ematen du INTERPOLen zerbitzuetara jotzeko. Transmisioa edozein bide fidagarriren bidez egin daiteke, eta Europar Sare

²⁶ DE FRUTOS, JLM., “Transmisión de la Euroorden. Aspectos policiales desde una perspectiva práctica”, Zuz. ARROYO ZAPATERO, L. eta NIETO MARTÍN, A., Koor. MUÑOZ DE MORALES, M., *La orden de detención y entrega europea*, 175-187 or., Ediciones de la Universidad Castilla-La Mancha, Cuenca, 2006, 175 or.

Judizialaren telekomunikazio sistema babestuaren bidez egiteko aukera ematen da (10.4 eta 10.2 art.). Transmisioan edo dokumentuen egiazkotasunaren inguruan zalantzak daudenean, kasua ezagutzen duten agintaritzak judizialen artean zuzenean kontsultatuko dira, eta beharrezkoa bada, agintaritzak zentralen parte hartzea posible izango da (10.5art). Dokumentazioa jasotzen duen agintaritzak ez badu eskumenik exekuzioa aurrera eramateko, ofizioz agintaritzak eskudunari helaraziko dio, agintaritzak igorlea informatuz (10.6art).

3.6.2 Exekuzioa

Exekuzio faseari buruz Erabaki markoak gaineratik xedatzen duela esan behar da. Estatuaren arauketari erreferentzia egiten dionez askotan, espainiar prozedimendua hartuko dugu oinarritzat.

Hasteko, AEEA jasotzean forma eta eduki aldetik ondo dagoela egiaztatzen da. Bestela, lehenago azaldu den bezala, agintaritzak judizialen arteko komunikazioa erabili behar da. Hizkuntzari dagokionez, Espainiaren kasuan, agintaritzak igorleari bueltatuko zaio AEEA gaztelaniaz idatzita ez badago, hori aldatzen duen beste hitzarmenik ez badago.

50. artikulua arabera, bilatutako pertsonaren atxiloteta PKLn aurreikusten den eran eta beharrezko baldintza eta bermeekin egingo da, eta ANren Instrukziozko Epaille Zentralaren esku jarriko da 72 ordu igaro baino lehen, honek agintaritzak igorleari jakinaraziko diolarik. Epailleak jakinaraziko dio AEEAren existentziaz, edukiaz eta entrega baimentzeko posibilitateaz, dagozkion beste eskubideez gain.

Audientzia epaillearen esku geratu ondorengo 72 orduetan egingo da. Ministeritza fiskalaz gain, Erabaki markoaren 11.2 artikuluan aurreikusten den moduan atxilotuaren abokatuaren presentzia beharrezkoa da, eta beharrezkoa bada, itzultzailearena (azkeneko hau, 2010/64/UE direktibak egonkortua).

Hasteko, atxilotuari galdetuko zaio entrega baimentzen duen edo ez. Espainiar zuzenbidean entregaren baimena ezeztatzina da.

Entrega baimentzen badu eta Instrukziozko Epaille Zentralak baimena librea eta ekartzen dituen ondorioak ezagutzen dituela konprobatzen badu (batez ere erabakiaren ezeztazintasuna), espezialitate printzipioari uko egiteko aukera emango zaio, espresuki

gainera (Erabaki markoaren 13. artikulua). Printzipio hau, estradizioaren oinarri izanik, AEEAn mantentzen da, baina ez du pisu nabarmenik, Fontestad Portalésentzat:

“Dicho principio subsiste en el procedimiento de la euroorden. Sin embargo, el principio de especialidad encuentra tal cantidad de excepciones en los textos normativos que regulan la euroorden que podríamos considerar más bien su vigencia como de carácter residual.”²⁷

Behin konprobatuta, autoa idatziko da 10 egunen buruan, eta ezin izango da errekurtsorik tarteratu horren aurka.

Baimena ematen ez badu, 3 egunen buruan ikustaldia egingo da. Alderdiak entzungo ditu epaileak, denegazio edo baldintzapen kausen aldiberekotasunaren inguruan. Alderdiek frogak proposatu ahalko dituzte, eta praktikorako tartea utziko da, betiere legeeak markatzen dituen mugen barruan. Bilatutako pertsona ez bada audientzian agertzen, baina behar bezala jakinarazi bazaio, emaitza berdina izango da.

Audientzia amaitzean, epaileak 10 egunetan autoa idatziko du, eta honen aurka apelazio errekurtsua tarteratu daiteke, ANren zigor arloko salan.

3.7 AEEA ez exekutatzeko arrazoiak

Exekuzio Estatuak AEEA bat jasotzen duenean, horren azterketa egin behar du, lehenago azaldu dugun moduan. Azterketa horren parte izango da exekuzioa aurrera ez eramateko Erabaki markoan aurreikusten dituen baldintzak betetzen diren konprobatzea, edo aurrera ez eramateko aukera ematen dutenak dauden konprobatzea.

3.7.1 Derrigorrez ez exekutatzeko arrazoiak

Erabaki markoaren 3. artikulua dio agintaritza judizialak exekuzioa ukatuko duela artikuluan zerrendatzen diren egoeretan. Araua inperatiboa izango da, eta Estatuak eta haien agintaritza judizialek ez dute hori aldatzeko fakultaterik izango. Hiru arrazoi biltzen ditu artikulua: amnistia, gauza epaitua edo *ne bis idem* eta adingabetasuna.

²⁷FONTESTAD PORTALÉS, L., “La orden europea... *op. cit.*, 243orr

3.7.1.1 Amnistia

3.1 artikuluan biltzen da. AEEAren exekuzioa ukatuko da agindua oinarritzen den delitua amnistiak estalita badago exekuzio Estatu kidean, delitu hori bere Zigor Kodean aurreikusita badago.

Espanian gaur egun amnistia ez da erantzukizun penalaren azkentzearen arrazoi bat, izan ere, Konstituzioak debekatu egiten ditu indultu orokorrak. Teorian baliokideak ez diren arren, 23/2014 legeko 48.1 artikulua indultua aipatzen du, exekuzioa aurrera ez eramateko arrazoi gisa:

“Nuestro Parlamento ha equiparado la medida de gracia que constituye la amnistía, regulada en la Decisión marco, con el indulto, en aras a no ejecutar la «euroorden» cuando sea aplicable dicha medida”²⁸

Baliokidetasun horretaz gain, erabaki honen beste aspektu batzuk ere kritikatu ditu doktrinak. Esaterako, indultua bakarrik sententzia irmoen ostean eman daiteke, beraz, gauza epaitu baten aurrean egongo ginateke eta *ne bis in idem* printzipioa betetzeko beharrean. Honek indultuaren erreferentzia behargabekoa egiten du, exekuzioa ukatzeko orduan.

3.7.1.2 Gauza epaitua. *Ne bis in idem*

Sententzia irmo baten aurrean, EBren Estatu kideen afera denean *ne bis in idem* printzipioan oinarritutako exekuzioaren ukatzea derrigorrezkoa da, Erabaki markoaren 3.2 artikulua araberaren arabera:

“Cuando de la información de que disponga la autoridad judicial de ejecución se desprenda que la persona buscada ha sido juzgada definitivamente por los mismos hechos por un Estado miembro siempre que, en caso de condena, la sanción haya sido ejecutada o esté en esos momentos en curso de ejecución, o ya no pueda ejecutarse en virtud del Derecho del Estado miembro de condena”.²⁹

²⁸ GARCÍA SÁNCHEZ, B., *La extradición en el ordenamiento interno español, internacional y comunitario*, Editorial Comares, Granada, 2005, 444or.

²⁹ 2002/584/JAI Erabaki markoa, 3.2 artikulua

Beraz, kondena dagoenean (eta hori exekutatu dela, edo exekutatzen dagoela, edo dagoeneko exekutatu ezin dela; bestela zigorra betetzeko AEEA bat litzateke), Estatu guztiek erabaki hau onartu beharko dute, Vervaeleren hitzetan:

“Cada vez que una sentencia se haya ejecutado en un Estado miembro, todos los demás estados deberán acatar esta decisión. La autoridad ejecutora tendrá que evaluar todas las sentencias anteriores relacionadas con la Ley bajo escrutinio, sin tener en consideración si proceden del Estado emisor, del Estado ejecutor o de otro Estado miembro.”³⁰

Arauketa honek Schengenekoa Hitzarmenaren 54. artikuluari eta 1957ko Estradizio Hitzarmenaren 9. artikulua osatzen duen Protokolo Gehigarriaren 2. artikuluari jarraitasuna ematen die.

3.7.1.3 Adingabetasuna

Bukatzeko, Erabaki markoaren 3.3 artikulua ezartzen du agintaritzak AEEA ukatu beharko duela erreklamatu den pertsona ezin dela, bere adinagatik, egitateengatik erantzule penaltzat hartu, exekuzio Estatuaren zuzenbidearen arabera. Ez da kontuan hartuko, beraz, Estatu igorlean erantzule den edo ez.

Adingabeak ez entregatzearen arrazoiak humanitarioak dira, eta zigor zuzenbidearen prebentzio bereziarekin erlazionatzen da, adingabeak bere ingurune sozialean egokiago gizarteratuko direlakoan.

Espainian 14 urteetan ezartzen da erantzukizun penala.

Erabaki markoan ez da beste ez-egozgarritasun kausarik aurreikusten, hauek aspektu subjektiboak direlako, eta agintaritzak judizial igorlearen esku utziko dira.

3.7.2 Aukeran ez exekutatze arrazoiak

Erabaki markoaren 4 eta 4 *bis* artikuluek AEEA aukeran ez exekutatze supostuak zerrendatzen ditu. Honek printzipioz agintaritzak judizialei diskrezionalitate zabala uzten die, estatuak supostu horien izaera derrigorrezkoa bilakatzen ez badute.

³⁰ VERVAELE, J., “El principio *non bis in idem* en Europa”, Zuz. ARROYO ZAPATERO, L. eta NIETO MARTÍN, A., Koor. MUÑOZ DE MORALES, M., *La orden de detención y entrega europea*, 229-257 or., Ediciones de la Universidad Castilla-La Mancha, Cuenca, 2006, 249 or.

Espanian hori zen 2003an egin zena, artikulua transposizio literala egin eta epaileen esku utzi ziren egoera horietan zeuden kasuen erabakia. 2014ko erreformarekin hau aldatu zen, eta *ne bis in idem* printzipioarekin (Erabaki markoaren 4.3 eta 4.5), preskripzioarekin (4.4) eta auzi ihesarekin (4. biseko 1. ataleko a,b eta c) erlazionatutako kasuetan, inperatiboa izango da exekuzioa ukatzea.

3.7.2.1 Krimen egozte bikoitzaren ausentzia

Exekuzio Estatuak uko egin ahalko entrega egiteari Erabaki markoaren 2.2 artikuluko zerrendatik kanpo dauden delitutako batean oinarritzen bada, krimen egozte bikoitzaren falta baldin badago. Artikuluak salbuespena egiten du tasa, zerga, aduana eta txanpon-aldaketaren kasuetan, non Estatuak inposatutako tipoek edo materia horietan egindako arauketak ezberdinak diren.

Hortaz, eta ez naiz gehiegi luzatuko, lehen azaldu dugun moduan krimen egozte bikoitza presente dago AEEAn, era mugatuan bada ere. Honek elkarri aitortzeko printzipioa era orokor batean aplikatzen ez dela ere argi uzten du.

Espanian aukeran utzi zaie agintaritzak judizialei, kasu bakoitzean erabaki dezaten entrega onartu ala ukatzen duten. Estatu gehienek, ordea, kausa hau derrigorrezkotzat sartu dute euren transposizio gehienetan, segurtasun juridikoa egonkortze aldera.

3.7.2.2 Auzibitarrea

AEEAren objektu den pertsona exekuzio Estatuan beste prozedimendu penal bat jasaten ari bada, agindua motibatzen duen egitate berdinarengatik, agintaritzak judizialak exekuzioaren ukatzea erabaki dezake.

Kasu honetan diskrezionalitatea ematen zaie epaileei, egoera dena dela ere, egitateak zigortuak direla ziurtatzeko.

3.7.2.3 *Ne bis in idem*

Aukerako ukapenezko supostuak izango dira, 4.3 artikulua entzat, agintaritzak judizialak prozesu bat ez irekitzea erabakitzen duenean, prozesu hori amaitutzat ematen duenean, edo beste Estatu batean sententzia irmoa dagoenean pertsona horren aurka, aurrerantzean dilijentzia penalari trabak jarri ahal dizkion kasuetan.

Azken supostua 3.2 artikularekin desberdintzeko, ulertu behar da sententzia eman dela, baina pertsona horri ez zaiola zigorrik ezarri, edo errekurtsioa tarteratu daitekeela:

“Respecto al segundo supuesto, la denegación de la ejecución cuando pese sobre la persona una resolución definitiva por los mismos hechos en otro Estado miembro, hay que apuntar que no se reconoce en toda su extensión el principio *ne bis in idem*, pues el Estado está facultado para entregar en los casos en los que haya recaído una resolución definitiva por los mismos hechos no condenatoria en otro Estado miembro. En mi opinión, se debe de entender el precepto en el sentido expuesto, pues si existe una resolución definitiva en otro Estado miembro por los mismos hechos condenatoria, estaríamos en el supuesto del artículo 3.2 de la Decisión marco, y habría que denegar obligatoriamente la entrega”.³¹

4.5 artikulua ere *ne bis in idem* printzipioa aipatzen du, baina kasu honetan, EBtik kanpoko Estatu batean sententzia irmo bat eman bada, entrega eskatu den pertsonaren aurka. 3.2n bezala, zigorra beteta dagoenean, zigorra betetzen ari denean ala jada bete ezin denean, kondena ezarri duen Estatuaren zuzenbidearen arabera.

3.7.2.4 Preskripzioa

Entrega ere ukatzeko aukera egongo da delitua edo zigorra preskribatu badira, exekuzio Estatuaren legislazioaren arabera, egitateak Estatu horren konpetentzia badira bere zigor zuzenbidearentzako.

Doktrinaren zati batek artikulua hau ez beharrezkotzat hartzen du, gauza epaituaren kategorian sar daitekeelako, horrela dio adibidez Alonso Moredak:

“En nuestra opinión se trata de un precepto superfluo ya que la prescripción del delito o la de la pena impuesta en sentencia firme pueden estimarse incluidas en el artículo 4.3 y en el artículo 3.2 de la Decisión marco respectivamente”.³²

Esan bezala, Erabaki markoaren 4.4 artikulua honen transposizioa Espainian aldatu da 2014az geroztik, eta orain ukapena derrigorrezkoa da.

3.7.2.5 Nazionalen eta egoiliarren entrega

³¹ GARCÍA SÁNCHEZ, B., *La extradición en... op. cit.*, 451 or.

³² ALONSO MOREDA, N., *Cooperación judicial... op. cit.*, 486 or.

Nazionalen eta egoiliarren entregaren inguruan, Erabaki markoak bi egoera ezberdintzen ditu. Aukeran AEEA ez exekutatzeko supostua 4.6 artikuluan arautzen da, AEEA diktatu bada exekuzio Estatuaren nazional edo egoiliarra den pertsona bati zigor edo askatasun gabetzaileko segurtasun neurriak betetzeko agindua helarazten bada. Kasu honetan, exekuzio Estatuak konpromezua hartu beharko du, Estatu igorleak ezarritako zigorra edo segurtasun neurria bere barne ordenamenduaren arabera exekutatzeko.

1996ko estradizio Hitzarmenarekin alderatuta aldaketa batzuk eman dira. Orduan, nazionalen entrega orokorki asumitu zen, Estatuak erreserbak egin zituzten arren, baina oraingo arauketa honek kritikak jaso ditu, estatuen subiranotasuna gehiegi babestu duelakoan elkarri aitortzeko printzipioaren kaltean:

“En resumidas cuentas, la Decisión Marco ha dado, hasta cierto punto, marcha atrás en lo que ese refiere a la entrega de nacionales (o de residentes). Si en el Convenio de 1996 se partía de una asunción genérica de la entrega de nacionales, y precisamente por ello los Estados expresaron sus reticencias al respecto a través de las oportunas reservas, en la presente Decisión Marco se despliega un amplio “menú a la carta”, que puede ir desde la entrega sin condiciones ni paliativos hasta la entrega con promesa de devolución del nacional o residente”.³³

Beste autore batzuen azterketek beste zentzu bat bilatu diote aldaketa honi. Izan ere, arauketa honek ez du nazionala zigorrik gabe geratzeko asmoa azaltzen, baizik eta birgizarteratze printzipioa betetzeko nahia. Ideia hau Komisioaren Proposizioan presente zegoen, eta Erabaki Markoan islada zuzena ez duen arren, artikulua horren atzean dagoela kontsideratzen dugu. Alonso Moredak azaltzen duenez, printzipio hori errazago beteko da pertsona hori nazionala edo egoiliarra den Estatuan:

“En lugar de proceder a la entrega del mismo con el objetivo de llevar a la práctica el principio de reinserción, que, sin duda, se podrá llevar a efecto de manera más satisfactoria en el Estado del cual es nacional o residente o en el que habita y, por tanto, donde mantiene sus vínculos familiares, sociales y laborales”.³⁴

³³ CUERDA RIEZU, A., *De la extradición a la “euro-orden” de detención y entrega*, Centro de estudios Ramón Areces, Madrid, 2003, 110 or.

³⁴ ALONSO MOREDA, N., *Cooperación judicial... op. cit.*, 488 or.

Espainiako legean bakarrik nazionalen kasuan aitortzen da ukatzeko aukera, eta gainera, hauek espresuki adierazi behar dute ez dutela Estatu igorlean zigorra bete nahi (48.2.b artikulua). Honek EBJA eta AKren jurisprudentzia alde batera uzten du, eta Erabaki markoaren kontra doa, egindako diskriminazioa 4.6 artikulua esandakoarekin kontraesanean aurkitzen delako. Ez da ulertzen 3/2003 zentzu honetan egindako zuzenketak eta gero (PSOEK Kongresuan eta Entesak Senatuan) 23/2014 legean artikulua berdin mantendu izana:

“Pues no entiende muy bien dicha exclusión de los residentes debido a que la Unión Europea propone una mayor equiparación de derechos de los residentes legales a los nacionales de los Estados miembros, teniendo en cuenta, además, que si tienen arraigo en España las posibilidades de reinserción serán mayores”³⁵

Bestalde, zailtasunak ikusten dira beste Estatu batean ezarritako zigorrak exekutatzeko. Izan ere, 2008/909/JAI Erabaki markoa, arlo penaleko sententziak elkarri aitortzeko printzipioaren aplikazioaren ingurukoa, bakarrik hemeretzi Estatu kidek harmonizatu dute euren legedian.

Honek behartzen du, transposizioa egin ez duten Estatuen kasuan, nazioarteko hitzarmenetara jotzea. Kasu honetan, sententzia penalen nazioarteko balioaren inguruko Europar Hitzarmena daukagu, eta hemen hasten dira zailtasunak. Hitzarmen honentzat, zigorra exekutatzeko mekanismoa krimen egozte bikoitzaren printzipioan oinarritzen da. Beharrezkoa izango da, beraz, krimen egozte bikoitza konkretua izatea, hau da, egitateak zigorgarriak izatea exekuzio Estatuan eta pertsona hori egozgarria izatea. Zailtasuna, orduan, Erabaki markoaren 3.2ko zerrendarekin daukagu, Florérentzat:

“Esto provoca una situación paradójica: si la orden de detención se emite por causa de una de las treinta y dos infracciones de la lista del artículo 3.2 de la Decisión marco y no hay doble incriminación de un modo concreto, no habrá apreciación de la doble incriminación por parte de la autoridad de ejecución, ni tampoco apreciación de la posibilidad de invocar el motivo de denegación opcional, ya que será imposible ejecutar la pena.”³⁶

³⁵GARCÍA SÁNCHEZ, B., *La extradición en... op. cit.*, 442 or.

³⁶ FLORÉ, D., “La entrega de los nacionales del estado miembro de ejecución de la orden de detención”, Zuz. ARROYO ZAPATERO, L. eta NIETO MARTÍN, A., Koor. MUÑOZ DE MORALES, M., *La orden*

3.7.2.6 Konpetentzia eta lurraldetasun printzipioak

4.7 artikulua a) atalean ezartzen da exekuzio agintaritzak AEEAren exekuzioa ukatu ahal duela aginduak aurreikusitako egitateak exekuzio Estatuak bere lurraldean gertatu direla kontsideratzen badu (edo partzialki han gertatu direla). Beraz, lurraldetasun printzipioaren aurrean gaude, konpetentzia propioaren prebalentzian oinarrituta.

Arau honek hutsune bat dauka egitateak partzialki exekuzio estatuan gertatu diren kasuetarako. Izan ere, kualitatiboki edo kuantitatiboki egitateak non gertatu diren erabakitzeke formularik ez sartzeak eragiten du kasu batzuetan delituaren karga gutxien jasan duen Estatuak kasua epaitu ahal izatea, Quintero Olivaresentzat:

“No es razonable que la competencia pueda ser atribuida a los tribunales del Estado en que tal vez se ha cometido la parte menos significativa de los hechos.”³⁷

4.7ren b) atalean, ordea, exekuzioaren ukapena permititzen da arau haustea Estatu igorlearen lurraldetik kanpo gertatu bada, eta exekuzio Estatuaren zuzenbideak ez badu arau hauste horien pertsekuzioa ahalbidetzen bere lurraldetik kanpo jasotzen direnean.

Hau identitate konpetentzia edo lurraldez kanpoko konpetentzia daukagu. Espainian pertsonalitate aktiboa, interes babesa eta jurisdikzio unibertsalaren printzipioak (BJLOko 23. artikulua) kontuan hartuta aplikatu daitezke, baina praktikak erakutsi du pertsonalitate pasiboa eta justizia osagarriaren printzipioak aldarrikatu ez dituztenez, kasu askotan epaitegiek ezin izan dutela erabili.

Artikulu honen ideia lurraldez kanpoko konpetentzia mugatzea da, Estatu batzuek ez dutelako aldarrikatu hori erabiltzeko tresna juridikorik bere ordenamendu juridikoan.

3.7.2.7 Auzi ihesean egindako sententziak

Ez naiz gehiegi luzatuko disposizio honekin, gero Melloni kasuaren azterketarekin gehiago sakonduko dudalako. Hala ere, badaude zenbait gauza bereziki aipagarriak, auzi

de detención y entrega europea, 207-219 or., Ediciones de la Universidad Castilla-La Mancha, Cuenca, 2006, 216 or.

³⁷ QUINTERO OLIVARES, G., “Lugar de Comisión del delito. El principio de territorialidad. Estado miembro de ejecución y de emisión” Zuz. ARROYO ZAPATERO, L. eta NIETO MARTÍN, A., Koor. MUÑOZ DE MORALES, M., *La orden de detención y entrega europea*, 219-229 or., Ediciones de la Universidad Castilla-La Mancha, Cuenca, 2006, 226 or.

ihesean egindako sententziek entrega ukatzeko aukera emateak aldaketa bat jasan zuela, bereziki.

Izan ere, lehen 5. artikuluan topatzen zen hau, hau da, orain azalduko ditugun entrega baldintzatzen duten arrazoen artean. Horrela, lehen pertsonalki edo beste era batez erreklamatutako pertsona ez bazen informatu epaiaren eguna eta tokiaz, entrega baldintzatu beharko zen estatu igorleak beste prozesu bat irekitzeari.

Hau, ordea, 2009/299/JAI Erabaki markoak erreformatu zuen. Honek 4 *bis* artikulua sortzen du, eta 5.1 ezabatu. 4 *bisek* auzi ihesean egindako sententzien bidez eskatutako entregak ukatzeko ahalmena ematen die agintaritza exekutatzailerei, baina entrega hori derrigortzen duten egoerak zerrendatzen ditu. Kasu horietan, Erabaki markoak adierazten du pertsona epaiketean egon ez arren, bere eskubideak urratu ez direla.

Beraz, erreklamatutako pertsona zitatua izan bazen, edo era ofizial batez jaso bazuen epaiketaren informazioa (betiere behar adina denborarekin) eta bere presentzia gabe epaia eman zitekeela ohartarazi zitzaion, edo abokatu bat izendatu zuen bere defentsarako, edo epaia eman zelaren berria eman zitzaionean, sententzia errekurritzeko ahalmena ematean berak errefusatzen bazuen, entrega derrigorrezkoa izango da.

3.7.3 Estatu igorleak exekuzioa burutzeko egin beharreko bermeak

AEEAren exekuzioa ukatzeaz gain, badaude zenbait egoera non exekuzioa baldintzatuta geratu daitekeen agintaritza judizial igorleak bete beharreko berme batzuetara, pertsona erreklamatuaren eskubideak babesteko. 2002an auzi ihesean egindako sententziak ere kategoria honetan sartzen ziren, baina 2009k aldaketek exekuzioa aukeran ukatzeko arrazoi izatera pasa zuten, 4 *bis* artikulua bitartez.

Kasu honetan, hartutako konpromisoa Estatu igorlearen esku geratzen da, exekuzioa egin duen Estatuak entrega exekutatzeko jarri duen baldintzaren betearazpenarekin, edo ez betetzearekin. Elkarrekiko konfiantzak ahalbideratu beharko luke Estatuak konpromezu horien betetzean sinestea.

3.7.3.1 Biziarteko askatasun gabetze zigorra

AEEA oinarritzen den delitua biziarteko askatasun gabetze zigor batekin zigortzen denean, aginduaren exekuzioa baldintzatuta egon daiteke Estatu igorleak bere ordenamendu juridikoan zigorraren berrikuspen bat aurreikusita izateari, kondena

betetzen ari den eskariz edo 20 urte pasatzean, edo Estatu horrek zigorra ez betetzeko bere zuzenbidean edo praktikan dauzkan errukitasun neurrien aplikazioari (Erabaki markoaren 5.2).

Printzipio hau GEEHren 3. artikulua aplikaziotik jasotzen da. Artikulu honek apalesgarriak eta gizabidezko ez diren zigorrak debekatzen ditu, horien barruan biziarteko espetxe zigorra sartzen duelarik. Betiere, zigor hau kondizionala izango da, presoaren espetxetik kaleratzea ahalbidetzen duelako.

Autore batzuek heriotza zigorrari buruzko aipamenik ez egiteaz ohartarazi egin dute, baina Alonso Moredarentzat ez da beharrezkoa:

“Tal omisión se debe a que, por un lado, el artículo 19 de la Carta de los Derechos Fundamentales de la Unión Europea garantiza que nadie podrá ser devuelto, expulsado o extraditado a un Estado en el que corra grave riesgo de ser sometido a la pena de muerte y, por otro, a que tal pena ha sido abolida en todos los Estados miembros, es más, el artículo 2.2 de la Carta mencionada garantiza que «nadie podrá ser condenado a la pena de muerte ni ejecutado», por lo cual es impensable que nos encontremos ante tal supuesto.”³⁸

Aipatutakoaz gain, López Ortegak Erabaki markoak berak AEEA exekutatzeko derrigorrezko ukapena aurreikusten duela biziarteko espetxe zigorrerako:

“La imposibilidad de acceder a la extradición cuando el reclamado pueda ser condenado a muerte se funda en la cláusula general contenida en el artículo 13 del Preámbulo de la Decisión Marco, que es consecuencia de la doctrina desarrollada por el Tribunal Europeo de Derechos Humanos en los casos Soering (STEDH 7 de julio de 1989) y Einhorn (STEDH 16 de octubre de 2001).”³⁹

Aldi berean esan behar da Estatu askok haien transposizio legean entrega ukatzeko derrigorrezko kausatzat barneratu dute.

3.7.3.2 Nazionalen entrega

³⁸ ALONSO MOREDA, N., *Cooperación judicial... op. cit.*, 550or.

³⁹ LÓPEZ ORTEGA, J.J., “Cadena perpetua y pena de muerte. El principio de especialidad”, Zuz. ARROYO ZAPATERO, L. eta NIETO MARTÍN, A., Koor. MUÑOZ DE MORALES, M., *La orden de detención y entrega europea*, 295-307 or., Ediciones de la Universidad Castilla-La Mancha, Cuenca, 2006, 297 or.

Lehen azaldu dugu sententzia irmoa dagoen kasuan aukerako ukapeneko kasu baten aurrean gaudela. 5.3n, ordean, kondenatuta ez dauden nazional edo egoiliarren egoera arautzen du, aginduak objektu duen pertsonaren entrega baldintzatuta geratzen delarik Estatu igoerak zigorra ezarri ostean, pertsona exekuzio Estatura bueltatzera. Beraz, pertsona horrek “joan eta etorriko” bidaia egiten du, Cuerda Riezuren hitzetan, Estatu igoerlean entzunda eta epaitua izaten delarik.

IV. JURISPRUDENTZIA

4.1 Melloni kasua

4.1.2 Aurrekariak. AKk aurkeztutako judizio aurreko arazoa

Melloni kasua izan da AKk EBJAri judizio aurreko arazoa planteatu dion lehen aldia. Auzi ihesean kondenatutakoen entregaren bidez, EBren lurraldean oinarritzko eskubideen babesaren mailaren inguruan arazoak daudenean (kasu honetan, Estatu mailako babesa eta EBko zuzenbidearen mailakoa) epaile nazionalak zein aplikatu behar duenaren inguruan.

Kasua 1996an hasten da, ANk Melloni jaunaren estradizioa onartu zuenean leporatzen zizkieten egitateengatik epaitua izateko. Fidantzapeko askatasuna ordaindu ostean, Melloni jaunak ihes egin zuen. Gauzak horrela, Ferrarako Auzitegiak auzi iheseko egoeran zegoela esan eta berak izendatutako abokatuak ohartarazi eta gero, Melloni jauna 10 urteko espetxe kartzela zigorrera kondenatu zuen, iruzurrezko porrotagatik. Errekurtsoek eraginik izan ez zuten, 2004an AEEA igorri zuen Bolognako Corte d'appellok.

Melloni jaunak ez duen entrega onartu, hasteko, berak beste abokatu bat aukeratu zuelako eta besteak baliogabetu zituelako, eta Italian ezin delako auzi ihesean diktatutako sententziak errekurritu. ANk ez zuen aintzat hartu eta entrega onartu zuen.

Orduan, Melloni jaunak konstituzio babes errekurtsua tarteratu zuen, EKko 24.2 artikulua urratzen zelakoan (berme guztiekin egindako prozesu bat izateko eskubidea aurreikusten duena) entrega burutzen bazen baldintza moduan ezarritako kondena errekurritzen ahalbidetzea jartzen ez bazen.

Arazoa orduan 2009/299 Erabaki markoak egindako aldaketetan zegoen, 4 *bis* artikulua debekatzen zuelako exekuzioa ukatzea, kondenatuari era egokian komunikatu bazitzaion epaiketaren lekua eta eguna, eta auzipetua azaldu ez arren bere abokatuak presente egoten bazen. Horrela, AKk planteatu zuen ea 2002/584 Erabaki markoak debekatzen zuen espainiar auzitegiek Melloni jaunaren entrega baldintzatzea bere kondena berrikusita izateko ahalmena izatera.

Horregatik, AKk prozedimendua eten zuen eta 3 judizio aurreko arazo planteatu zizkion EBJAri:

Lehenbizi, ea 2002/584 Erabaki markoaren (2009/299 erreformaz geroztik) 4 *bis* artikulua interpretazioa den agintaritza judizialek, kasu honetan, debekatuta duten AEEA baten exekuzioa kondena berrikusita izan daitekeela baldintzatzera, erreklamatuaren eskubideak bermatzeko.

Bigarrenik, aurreko kuestioari baiezkota ematen bazitzaion, ea 4 *bis* eko 1. atala bateragarria den EBOEGko 47. Artikuluak exijitzen duen benetako babes judizialerako eta bidezko prozesu bateko eskubidearekin eta 48.2 artikulua aurreikusitako defentsaren eskubideekin.

Azkenik, aurreko biek baietza jasoz gero, galdetzen zen ea EBOEGko 53. artikulua, non esaten den “Ninguna de las disposiciones de la presente Carta podrá interpretarse como limitativa o lesiva de los derechos humanos y libertades fundamentalmente reconocidos, en su respectivo ámbito de aplicación (...), así como por las constituciones de los Estados miembros)”⁴⁰, 47 eta 48.2 artikuluekin erlazionatuta, baimentzen duen Estatu kide bat entrega baldintzatzan auzi ihesean egindako sententzia baten errebisioa egitera, oinarritzko eskubide horiei babes neurri zabalago bat emanez EBren zuzenbideak ematen diona baino, Estatu horretako Konstituzioak onartzen duen oinarritzko eskubide baten interpretazioa ez mugatzeko.

4.1.2 EBJAren erantzuna

EBJAK C-399/11 asuntuari 2013ko otsailaren 26an eman zion amaiera.

⁴⁰ Europar Batasunaren Oinarritzko Eskubideen Gutuna, 53. artikulua

Hasteko, judizio aurreko arazoaren onargarritasuna defenditu zuen, zenbait alderdik aplikatu ezin zela argudiatzen zutelako *ratione temporis*. Auzitegiak erantzuten du 2002/584 Erabaki markoaren 4 *bis* artikuluko disposizioak prozedimendu erregelak direla, eta horiek aplikagarri direla irekiak dauden kasuetan.

Gero, fondoaz aztertzen du. Lehenengo kuestioari erantzuteko, auzitegiak 2002/584 Erabaki markoaren helburua entrega sistema sinplifikatu bat eratzea dela azpimarratzen du, ebazpen judizialen elkarri aitortzean eta elkarrenganako konfiantzan oinarrituta.

Ondoren, 4 *bis* artikulua azterketa egiten du. Disposizio honek AEEAren exekuzioa aukeran ukatzeko arrazoa aurreikusten du, baina 4 *bis* eko 1. atalak ere 4 egoera zerrendatzen ditu, non AEEAren exekuzioa ukatzeko ahalmena kentzen zaion agintaritza judizialari. Bereziki, atal horretako a) eta b) letretan esaten da pertsona horrek epaiketa egongo zela bazekien, eta bertaratzen ez zen arren abokatu bat izendatzen bazuen.

Interpretazio honek araugilearen helburuak ere jarraitzen ditu, EBJAren iritziz. Izan ere, 2009/299ko 2,3 eta 4 kontuan hartzekoek eta 1. artikulua aintzat hartuta, interpretatzen da araugilearen nahia lankidetzat judizial penala erraztea zela, ebazpen judizialen elkarri aitortza hobetuz.

Guzti hauek kontuan hartuta, EBJAk adierazten du 4 *bis* artikulua interpretazioa argia dela, eta entrega auzi ihesean diktatutako epaiaren berrikuspena egitera baldintzatzea ez duela onartzen.

Beraz, bigarren arazora pasatzen da. Hemen aztertutakoa ea 4 *bis* EBOEGren 47 eta 48.2 artikuluekin bateragarri den jakitea da, jakinda EBko Hitzarmenak Gutunari hitzarmen baliu bera eman diola.

Esaten du presentzia funtsezko elementua dela, bidezko prozesu bat edukitzeko orduan, baina absolutua ez dela adierazten du, eta gero garatu:

“Aunque el derecho del acusado a comparecer en el juicio constituye un elemento esencial del derecho a un proceso equitativo, aquel derecho no es absoluto (...). Más concretamente, no se produce una vulneración al derecho a un proceso equitativo, aun si el interesado no ha comparecido en el juicio, cuando haya sido informado de la fecha y

el lugar del juicio o haya sido defendido por un letrado al que haya conferido mandato a ese efecto”⁴¹

Interpretazio hau bat dator GEEHren 6.1 eta 6.3 artikuluek aurreikusten dituzten eskubideen irismenarekin:

“Sin embargo, la inclusión de tal derecho recogido en el art. 6 del CEDH se ha condicionado por la doctrina del TEDH a que estas personas, cuando hayan sido informadas de manera efectiva de las diligencias, no hayan renunciado de manera inequívoca a su derecho a comparecer.”⁴²

Beraz, 4 *bis* bateragarria da EBOEGko 47 eta 48.2 artikuluekin, boluntarioki epaiketara aurkeztu ez denean ez direlako benetako babes judizialerako, bidezko prozesua izateko eta defentsa eskubideak urratzen.

Erantzun honek 3. arazoa aztertzeraz eraman zuen Auzitegia. EBOEGko 53 artikulua aipatutako 47 eta 48.2kin erlazionatu zituen AK. Honen iritziz, hori egitean artikulua horrek Estatuari baimena ematen zion Estatuaren Konstituzioan oinarritzko eskubideei aurreikusten zaion babes maila zabalagoa aplikatzeko eta horren bidez EB zuzenbidearen disposizioak ez aplikatzeko erabili.

Interpretazio hori ezin da egin EBJArentzat, “dicha interpretación del artículo 53 de la Carta menoscabaría el principio de primacía del Derecho de la Unión”.⁴³

EBJAK onartzen du EBren zuzenbidearen akto batek neurri nazionalak behar dituzenean, Estatuak beren oinarritzko eskubideen babes neurriak aplikatu ahal dituztela, baldin eta babes hori ez bada Gutunarena baino gutxiago, eta ez badu EBko zuzenbidearen batasuna, eraginkortasuna eta lehen aipatutako lehentasuna urratzen.

Azken arazoarekin bukatzeko, errepikatzen da 2009/299ren elkarri aitortzeko eta elkarrenganako konfiantzaren printzipioak sendotu nahi dituela, eta EBOEGren 53. artikulua aplikatzen uzteak eragingo luke printzipio horien kontra joatea eta Erabaki markoaren eraginkortasuna kolokan uztea.

⁴¹ EBJA sententzia, 26.2.2013, C399/11, 49. atala

⁴² AKS 26/2014, 4. Oinarri juridikoa.

⁴³ EBJA sententzia, 26.2.2013, C399/11, 57. atala

EBJAK sententzia honekin oinarrizko eskubideen babes neurriak argi uzten ditu. Izan ere, horretarako aukera dutenean, Estatuak haien neurriak aplikatu ahalko dituzte, baina horrek ez die ahalmenik emango EBren zuzenbidearen lehentasuna ez errespetatzeko.

4.2 Aranyosi eta Căldăraru kasua. Elkarrenganako konfiantza printzipioaren salbuespenak, oinarrizko eskubideak jokoan daudenean.

EBJAK metatutako C-404/15 era C-659/15 kasuek lehen aldiz aztertzen dute EBko lurraldeko kartzelen baldintzak eta hauen efektuak lankidetzaren judizialean. Biak Bremeneko Auzitegiak egindako judizio aurreko arazoaren planteamenduan dute sorrera, afera delarik AEEAren subjektuak entregari uko egiten diola Estatu igorlearen kartzelen baldintzek ez dituztenean EBOEG eta GEEHren minimoak betetzen.

Izan ere, torturaren eta tratu apalesgarri edo ez gizabidezkoen urratzeak lankidetzaren judizialaren, eta bereziki, elkarri aitortzeko printzipioaren arrisku bat dira, Martín Rodríguezentzat:

“Decir que el reconocimiento mutuo en el ELSJ y, más concretamente, en la cooperación judicial penal, plantea numerosos problemas de protección de derechos fundamentales es un homenaje a la obviedad”.⁴⁴

Honek EBren lankidetzaren judizialaren modelo teorikoaren aukeraketara ekartzen gaitu. Alde batetik, modelo bidimentsionala daukagu, bakarrik bi Estatuak barne hartzen dituen, kasu honetan Estatuaren subiranotasuna ordez (estradizioaren kasuan bezala) elkarrekiko konfiantzan duelarik oinarria. Beste aldetik, modelo tridimentsionala, Nazioarteko Zuzenbide publikoak hobetsia, Estatuak gain pertsona erreklamatuaren erlazio juridikoan sartzen duelarik, bere oinarrizko eskubideak errespetatuak izan daitezken. Horretarako, estradizio epaileari ematen zaio pertsona horren eskubideak babesteko mandatua.

4.2.1 Kasua

⁴⁴ MARTÍN RODRÍGUEZ, P.J., “La emergencia de los límites constitucionales de la confianza mutua en el espacio de libertad, seguridad y justicia en la sentencia del tribunal de justicia Aranyosi y Caldăraru”, *Revista de derecho Comunitario Europeo*, 859-900or, 2016, 863 or.

Bi kasuak Bremengo Auzitegiak jaso dituen bi AEEA exekutatzeko prozedimenduak dira, Aranyosi jaunaren entrega Hungariako auzitegi batek eskatzen duelarik, eta Caldararu jaunarena Errumaniako auzitegi batek. Biek uko egiten diote entrega onartzeari, Estatu horietako kartzeletan tratatu apalesgarri eta ez gizabidezkoak pairatuko dituztelakoan. Horrela, Ministeritza fiskalak informazioa eskatzen du, bi auziperatuak sartuko diren espetxeen inguruan, baina ez du erantzunik jasotzen.

Informazio eskatze hau hainbat adierazpenengatik dago motibatuta, batez ere, GEEAk egindakoa, non herrialde horietako espetxeen baldintzak GEEHren 3. artikuluaurren urratzea bezala hartu diren:

“Así, el TEDH había dictado, en marzo de 2015, una sentencia piloto contra Hungría en la que establecía la existencia de un problema estructural de su sistema penitenciario, donde la superpoblación carcelaria *per se* o en conjunción de otras condiciones de detención constituía un tratamiento inhumano o degradante contrario a la dignidad humana y proscrito por la prohibición absoluta del art. 3 CEDH. La situación en Rumanía no era menos patente: las condenas por violación del art. 3 CEDH como consecuencia de la sobrepoblación carcelaria se han sucedido una tras otra.”⁴⁵

Beste erakunde batzuk, Komisia adibidez, zentzu berean adierazi dira EBko Estatu batzuetako espetxeen baldintzetaz.

Horregatik, Bremeneko auzitegiak judizio aurreko arazoa planteatu zuen, bi kasuetarako galdera berdinak planteatuz. Lehenengo, ea 2002/584 Erabaki markoaren 1.3 artikulua ahalbidetzen duen entrega ukatzea, espetxeratzeak ez duenean pertsonaren oinarrizko eskubideak errespetatzen, batez ere, EBOEGren 4. artikuluan adierazitakoa. Horretaz gain, galdetzen du ea exekuzio Estatuak betekizun minimoak ezarri ahal dizkion Estatu igorleari, espetxealdiari dagokionez, eta ea igorpen-epaileak betekizun horiek bermatu ahal izango dituen.

Judizio aurreko arazo hauek EBJAk momentu horretara arte ebatzi ez zuen gaia azaleratzen zuen: ea ebazpen judizialen elkarri aitortza kondizionatu ahal zitekeen Estatu igorleak oinarrizko eskubideak errespetatzearen exigentziari.

Erabaki markoan, oinarrizko eskubideen errespetua 1.3 artikuluan aurkitzen da, zeinak adierazten duen Erabaki markoa ezin dela EBren Hitzarmeneko 6. artikuluan aurreikusten

⁴⁵ MARTÍN RODRÍGUEZ, PJ; “La emergencia de los límites... *op. cit.*, 871-872 or.

diren oinarrizko eskubide eta printzipioen betetzearen derrigortasunari efektua kentzeko aitzakia izan. Hori horrela izanda, entrega ukatzeko edo baldintzatzeko motiboen artean ez da azaltzen. Gainera, *Melloni* sententziari jarraiki, Erabaki markoa bateragarria da EBOEGrekin eta honek egiten zuen eskubideen babes maila ezin zen zalantzan jarri konfiantza eta elkarri aitortzeko printzipioen kontra joan gabe.

Ildo honetan, 2/13 Irizpenean EBJAk adierazten du elkarrekiko konfiantza printzipioak Estatuak derrigortzen dituela beste Estatu kideek oinarrizko eskubideak errespetatzen dituztela presumitzera. Gainera, debekatu egiten du EBko zuzenbideak baino maila altuagoko babes bat ematea oinarrizko eskubideei. Aldi berean, debekatu egiten du beste Estatuak EBko zuzenbideak aurreikusten duen babes maila kasu konkretu batean betetzen duten konprobatzea, salbuespenezko egoeretan izan ezik. Gakoa, beraz, salbuespenezko horiek zein diren identifikatzean dago.

Bot Abokatu orokorraren ebazpena azaltzea beharrezkoa ikusten dut, bere soluzioa ez datorrelako bat Auzitegiak emandakoarekin. Honek 1.3 artikuluko disposizioari izaera sinbolikoa ematen dio. Elkarrekiko konfiantza eta elkarri aitortzeko printzipioa bat datozen heinean, Estatuak sinistu beharko dute besteek EBren zuzenbidea eta bertan aurreikusten diren oinarrizko eskubideak beteko dituztela.

Bere iritziz, 1.3k bakarrik oinarrizko eskubideak bete behar direla gogorarazten du, eta bakarrik Kontseiluak izango du, salbuespenezko egoeretan, prozedimenduaren etendura aurrera eramatea, “en virtud del considerando nº10 del la DM, puede iniciar el procedimiento de suspensión de la ODE en base al artículo 7.2 TUE.”⁴⁶ Bere argudioa defendatzen du 2/13 Irizpena erabiliz, zeinak lehen esan dugun moduan, oinarrizko eskubideen babesaren inguruan ezin den kontrol-erlaziorik eraiki.

Ikuspegi hau kritikatu egiten du Muñoz de Morales Romerok berak:

“Por tanto, los principios de reconocimiento y confianza mutua, aun siendo fundamentales en la creación y mantenimiento de un espacio sin fronteras interiores, admiten limitaciones. En consecuencia, la función del artículo 1.3 no puede circunscribirse a efectos meramente simbólicos”⁴⁷

⁴⁶ MUÑOZ DE MORALES ROMERO, M; “Dime cómo son tus cárceles y ya veré yo si coopero. Los casos Caldararu y Aranyosi como nueva forma de entender el principio de reconocimiento mutuo”, *InDret*, Barcelona, 2017, 10 or.

⁴⁷ MUÑOZ DE MORALES ROMERO, M; “Dime cómo son... *op. cit.*, 11 or.

4.2.2 EBJAren ebazpena

Auzitegiak bi asuntuei batera erantzuten die. 77. ataletik 80.era finkatzen du elkarrekiko konfiantzaren eta elkarri aitortzeko printzipioen nagusitasuna, eta horri jarraiki AEEA baten exekuzioa ukatzea bakarrik Erabaki markoaren 3 eta 4 artikuluen bitartez egin daitekeela azpimarratzen du. Gero, Abokatu orokorrak bezala, etendura bakarrik 10. kontuan hartzekoan aurreikusten den mekanismoa bakarrik EBko Hitzarmenaren 7.2 artikuluen prozeduraren bitartez egin daitekeelarik (2. Artikuluko baloreak larriki eta sistematikoki urratzen badira).

Diferentzia 82. atalean aurkitzen dugu, non Auzitegiak adierazten duen salbuespenezko egoeran elkarrenganako konfiantza eta elkarri aitortzeko printzipioak mugatu daitezkeen. Auzitegiak argudiatzen du Erabaki markoaren 1.3k eta Gutunaren 51.1ek derrigortzen dutela Gutunaren 4. artikuluan eta GEEHren 3.ean aurreikusten den tortura eta tratu apalesgarri edo ez gizabidezkoen debekua aplikatzera, honek daukan inportantziarengatik. Eskubidea absolutua dela azpimarratzen du, Gutunaren 1. artikuluko pertsonen duintasunarekin bateraezina den heinean.

Horrela, 88. atalean argi uzten da AEEAren exekuzioa ezin dela gertatu pertsona horrek tratu apalesgarri edo ez gizabidezkoak jasango baditu. Hori bai, exekuzio agintaritza judizialak justifikatu beharko du, bere argudiaketaren baserako “elementos objetivos, fiables, precisos y debidamente actualizados (...) que demuestren la existencia de deficiencias sistémicas o generalizadas que afecten a ciertos grupos de personas o a ciertos centros de reclusión”⁴⁸erabiltzen, nazioarteko organismo eta Auzitegien ebazpenak erabiliz.

Hala ere, kartzelen sistemaren hutsune horiek ezin dute, beste motiborik gabe, exekuzioaren ukatzea ekarri, ez duelako esan nahi pertsona horrek berak tratu apalesgarri edo ez gizabidezkoak jasango dituenik. Beraz, hori frogatu beharko du agintaritza judizialak. Horretarako, agintaritza igorleari informazioa eskatuko dio, pertsona horrek Estatu kide horretan zein kondiziotan espetxeratua izango den inguruan, kontrol horien mekanismo nazional eta nazioartekoak barne.

⁴⁸ Aranyosi eta Caldararu sententzia, 89. atala

Epailleak informazio horren arabera arrisku erreala atzemango balu, ezingo du entrega ukatu, bakarrik erabakia atzeratu ahalko du. Erreklamatutako pertsona atxilotuta badago, atzerapen horrek askatasun gabezia luzatzea erabakitzen bada diligentziaz eta proportzionalki izan beharko da, eta behin behineko askatasuna ematen bazaio, behar diren neurriak hartzea ihesa ekiditeko.

Amaitzeko, azken atalak eta epaitzak arrisku hori baztertzea ezinezkoa bada, agintaritza exekutatzaileak entrega prozedimenduari amaiera ematen dion erabaki beharko duela adierazten dute.

V ONDORIOAK

Ondorioei hasiera emateko, ASJerekin hasiko naiz. ASJE testuinguru politiko baten emaitza da. EBn ekonomia eta merkataritza arloan aurrerapausoak ematen zirelarik, horien inguruan sortu zitezkeen arazoak ekiditeko sistema baten beharra antzeman zen. Merkatu bakarra eta pertsonen eta merkantzien zirkulazio libreak bere inguruan estruktura baten beharra zuten. Mugak irekitzeak arrisku batzuk daramatza berarekin, krimen transnazionalari ateak irekitzen bait dizkio, eta horregatik lankidetzaren guztiz beharrezkoa da sistema hori bermatzeko.

Nik lankidetzaren judizial penala aztertu dut, batez ere, eta ikusi dugunez, pausoak oso politiki ematen dira arlo honetan. Izan ere, Estatuaren subiranotasunaren nukleoan dauden materiak jorratzen ditu, horien artean *ius puniendia*, eta zaila da Estatu ezberdinetako estruktura penalaren artean existitzen diren ezberdintasunak leuntzea.

Hala ere, pausuak nabarmenak izan dira. Hasieran gobernuarteko lankidetzaren soila izatetik, supranazionalizatuz joan da, batez ere Lisboatik aurrera. Orain, europar integrazio prozesuaren helburuetako bat da.

Lankidetzaren judizial penalaren, eta noski, AEEAren oinarriko printzipioak elkarrekiko konfiantza eta ebaspen judizialen elkarrekiko aitortza dira. ASJE oso bat eratze bidean, bi printzipio hauek ezinbestekoak dira lankidetzaren honek funtzionatzeko. Zigor legeen harmonizazioak arazoak nabarmenki erraztuko zituen, baina historia eta kultura hain ezberdinetako Estatuaren artean, eta lehen esan dugun bezala, subiranotasunaren muinean dauden materiak izanda, oraindik ezin da aurreikusi horrelakorik.

Honek oraindik ere garrantzia gehiago ematen dizkio aipatutako printzipioei. AEEAk aplikatzerako orduan, konfiantza ezinbestekoa izango da bi herrialdeen artean, oinarriko eskubide zein eskubide prozesualak beteko diren inguruan batez ere. Ordenamendu eta agintaritza judizial ezberdinek parte hartzean, elkarrekiko konfiantza ezak sistemari zentzua kenduko lioke, eta berriz ere hitzarmenen bitarteko gobernuarteko lankidetzari heldu beharko lirake Estatu Kideak.

Bereziki inportanteak dira bi printzipio hauek AEEArentzako. Lanean azaldu den bezala, estradizio sistema sinplifikatu baten aurrean gaude. Honek egiten du kontrol politikoa ezabatzen dela, eta bakarrik epaileek emango diotela begiratu entrega-eskatze bati. Epe

laburrek ere egiten dute elkarrekiko konfiantza ezinbestekoa izatea, AEEAren izaera azkar eta sinplifikatu horrek zentzua izateko.

Beraz, ASJEk Estatuak behartzen ditu besteengan konfiantza izateari, horrela ebazpen judizialak aitortu eta Justizia Espazioaren funtzionamendua mantentzeko. EBk, ordea, harmonizazio prozesuan pausuak eman behar ditu, eta baita ere, elkarrekiko konfiantza horri zailtasunak jartzen dizkioten Estatuei oharrak, isunak, edo, beharrezkoa balitz, kaleratzeari ekingo diola bermatu behar du. Izan ere, elkarrekiko konfiantza ulertu behar da EBren printzipioak betetzen dituzten Estatuaren artean mantendu beharko dela, baina azkenaldian badira zenbait Estatu non EBren parte izan arren, funtsezko printzipio eta oinarrizko eskubide horietako batzuk guztiz errespetatzen ez dituztenak.

Oinarrizko eskubide horiek izan dira, orain arte, elkarrekiko konfiantzari planteatu zaion arazorik handiena, sententzien analisisian ikusi dugun bezala. Izan ere, EBOEGk Lisboaz geroztik hitzarmenen balio juridiko berdina dauka, eta orain aplikagarria da zuzenbide komunitarioaren aktoetan. Lehen esan dugun moduan, oreka mantendu beharko da elkarrekiko konfiantzaren artean, eta gainontzekoek konfiantza hori izateko Estatu kide guztiek bete beharreko minimoen artean, oinarrizko eskubideen babesari buruz ari garelarik.

VI BIBLIOGRAFIA

Liburu eta monografiak

ALONSO MOREDA, N., *Cooperacion judicial en materia penal de la Unión Europea, instrumento privilegiado de cooperación*, Aranzadi, Zizur Txikia, 2016.

ARROYO ZAPATERO, L., NIETO MARTÍN, A., (Zuz.), MUÑOZ DE MORALES, M. (Koord.), *La orden de detención y entrega europea*, Ediciones de la Universidad Castilla-La Mancha, Cuenca, 2006.

BORRAJO INIESTA, I., *El espacio de libertad, seguridad y justicia: origen, evolución y configuración actual*, Aranzadi, Zizur Txikia, 2016.

CARRERA HERNÁNDEZ, F.J., NAVARRO BATISTA, N., *El espacio de libertad, seguridad y justicia de la Unión Europea. Textos fundamentales*, Tecnos, Madrid, 1999.

CASTILLEJO MANZANARES, R., *El procedimiento español para la emisión y la ejecución de una orden europea de detención y entrega*; Aranzadi, Zizur Txikia, 2018.

CEDEÑO HERNÁN, M., *La orden de detención y entrega europea: los motivos de denegación y condicionamiento de la entrega*; Aranzadi, Zizur Txikia, 2011.

CUERDA RIEZU, A., *De la extradición a la “euro-orden” de detención y entrega*, Centro de estudios Ramón Areces, Madrid, 2003.

GARCÍA SÁNCHEZ, B., *La extradición en el ordenamiento interno español, internacional y comunitario*, Editorial Comares, Granada, 2005.

GAVILÁN RUBIO, M., “La cooperación judicial y policial europea. La orden europea de detención y entrega”; *Anuario Jurídico y Económico Escurialense*, 189-208 or., Madrid, 2014.

MANGAS MARTÍN, A., LIÑÁN NOGUERAS DJ., *Instituciones y Derecho de la Unión Europea*, Tecnos, Madrid, 2014.

MARCOS FRANCISCO, D., *Orden Europea de Detención y Entrega. Especial referencia a sus principios rectores*, Tirant Monografías, Valencia, 2008.

MOLINA MANSILLA, M.C., *Instrumentos y estructuras de cooperación penal europea*, Bosch, Barcelona, 2008.

SÁNCHEZ LEGIDO, A., *La euro-orden, el principio de doble incriminación y la garantía de los derechos fundamentales*, Albacete, 2007.

TURRILLAS ALLI, I., *Prevención de la delincuencia grave y organizada en la Unión Europea*, Editorial Dykinson, Madrid, 2016.

Aldizkari eta liburuetakako artikulak

FERNANDEZ ROZAS, J.C., “El espacio de libertad, seguridad y justicia consolidado por la Constitución Europea”, *Revista Jurídica Española La Ley*, 1867-1881 or., Madrid, 2004.

FONTESTAD PORTALÉS, L., “La orden europea de detención y entrega: origen y principios rectores”, *Revista de derecho procesal*, 239-243 or., Madrid, 2011.

MARTÍN RODRÍGUEZ, P.J., “La emergencia de los límites constitucionales de la confianza mutua en el espacio de libertad, seguridad y justicia en la sentencia del tribunal de justicia Aranyosi y Caldaru”, *Revista de derecho Comunitario Europeo*, 859-900or, 2016.

MUÑOZ DE MORALES ROMERO, M; “Dime cómo son tus cárceles y ya veré yo si coopero. Los casos Caldaru y Aranyosi como nueva forma de entender el principio de reconocimiento mutuo”, *InDret*, Barcelona, 2017.

VALLE GARAGORRI, R., “La Cumbre Europea Extraordinaria de Tápere”, *El Espacio de Libertad, Seguridad y Justicia*, Barne Ministeritza, Madrid, 2000.